



Horra, horra
gure Olentzero...



Zorionak eta Urte berri on !



ASEGURUAK
Ges

Kalitatezko zerbitzua da
gure lanaren arrazoia

- Etxeko aseguruak
- Kotxeak
- Dendak
- Istripuak
- Erretiroak
- Enpresak
- Bizitza-aseguruak...



Jaiggi

KAFE-ANTZOKIA



Eguberri zoriontsuak opa dizkizuegu !



**GELTOKI KALEA 4 BEHEA
LASARTE-ORIA • Tel.: 943 377024**



Erabateko gutizia aurkituko duzue gure produktuetan!

Bila bazabiltza, hemenxe



gure BETIKO kafea



Oso ondo pasa jai hauetan eta urte berri zoriontsua izan dezazuela !



**GURE
KALITATEA
DASTATU**

Pablo Mutiozabal 3 • Tel.: 943 364121 • 20160 LASARTE-ORIA

Aurkibidea

- 4 Albisteak
- 5 Santo Tomas feria
- 6-7 Olentzero eta Mari Domingiri Ongi Etorria
- 8-9 Gabonetan zeregin ugari
- 10 Jaiotza lehiaketa
- 11 Olentzerori eskaerak
- 12-13 Islada ezkutatuak, oroimen historikoaren alde
- 14-15 Manuel Lekuona, Lasarte-Oriari lotutako bizitza
- 16-17 Anaiak dendari agurra
- 18 Buruntzako errekor berria, Endika Gartzia
- 19 Korrikalariaren agurra, David Martin
- 20-21 Haur minbizia, Unai Fraile
- 22 Pausoka elkartearekin herriko pailazoak
- 23 Benedika mendiaren ipuina
- 24-25 Txintxarriren errezeta zaharrak
- 26 Euskarazko produktuen katalogoa
- 28-29 Agenda
- 30 Zorion agurrak



Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



**Lasarte-Oriako
Udala**
Euskara Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA



GFAko Kultura eta
Euskara Departamendua

Argitaratzailea: Txakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366 858, 943 371 448, G-20407557 **Legezko gordailua:** SS513/93 ISSN: 1134-0053 **Inprimategia:** Zeroa Multimedia, S.A.
Aleak zenbakiko: 7.800 **Erredakzioa:** Nerea Eizagirre, Jon Altuna Iza, Maider Azurmendi, Jon Altuna Egitegi txintxari@txintxari.info txintxari@ttakun.com **Publizitatea:** Arantza Artola, publizitatea@ttakun.com
Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com. Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Inauterietan munduko kulturak

Datorren urteko gaia herritarren proposamenetatik atera da

Munduko kultura ezberdinek hartuko dute Lasarte-Oria 2013ko inauterietan. Hala erabaki zen festa hau antolatzeko martxan jarritako parte-hartze prozesuaren lehen bileran. Honetan udal teknikari eta arduradunarekin batera herriko elkarte ezberdinetako ordezkariak parte hartu zuten besteak beste. Dagoeneko mozorroa pentsatzen hasteko tartea zabaldu da!

Asteartean burutu zen 2013ko Inauteriak antolatzeko lehenengo bilera. Parte hartzea sustatzeko asmoz udalak eraikin ezberdinetan jarritako postontzietan jasotako proposamen guztiak aztertu ondoren, Munduko kulturak izan zen azkenean bileran hautatutako gaia.

Abiapuntua zein den jakinda, egitaraua prestatzeko lanei hasiera ematen zaie horrela. Munduko kulturak izango da 2013ko inauterietan gaia eta herritarrek dagoeneko has daitezke mozorroa pentsatzen.

Gai orokorra

Udalak gai orokor bat eskatzen zien herritarrei erraza eta herri guztia atontzeko moduko ia zedin, eta hala izan da hautaketa. Izan ere, festa honek indarra hartu du azken urteetan eta ahalik eta parte hartze handiena lortu nahi dute udalek.

“Gaia aukeratzearrekin batera lanari hasiera besterik ez zaio eman”. Datoren hila-beteetan elkarlanean arituko dira bileren ondoren egitaraua lantzen udala eta herritarrek. Antolaketa prozesu irekia martxan dela esan daiteke eta gaia aukeratzearrekin batera lanari hasiera besterik ez zaio eman”.



Taxio Arrizabalaga Festak ataleko zinegotziarekin batera, herriko elkarte ezberdinetako ordezkariak eta udal teknikariak.

gain, bileran festaren inguruko beste zenbait kontu argitu ziren. Diru-laguntzen inguruko informazioa eman zen eta urtarrean zehar egingo diren bileren egunak zehatu, bi

egin dira egitaraua lantzeko eta hirugarren bat festaren balorazio zehatza egingo.

Konpartsak sortu

Udalak bestalde, aukera

eman nahi die herritar guzteei inauterietan antolaketa parte hartzeko, bereziki, animatu nahi dituzte konpartsa bat osatzeko prest dauden lagun koadrila berriei.

Musika eskolako Gabon doinuak

Lasarte-Oriako udal musika eskolako ikasle eta irakasleak astearte arratsaldean herriko kaleak girotu zituzten Gabon doinu klasikoenkin.

Herriko musika eskolako ikasleek Gabonetan kontzertu berezia eskaini ohi dute aurtengoan ordea, musika instrumentuak hartu eta kalejiran atera ziren herriko kaleetan barrena Gabon kantak jo eta abestuz.

Eguraldiak baldintzatuta

Ibilbidea Manuel Lekuona kultur etxean hasi zuten eta bertan hainbat kanta abestu ondoren, Okendo plazarantz abiatu ziren.

Okendo plazan herritar andanaren aurrean beste hainbat Gabon kanta jo zituzten txalo zaparrada jasoz.



Musika Eskolako ikasle eta irakasleak Ama Brigitarren komentuan egindako saioan.

Hurrengo geldialdia Brigitarren komentu barruan egin zuten eta azkena San Pedro eliza ondoan izan zen.

Hemen emanaldia amaitzen eguraldi kaxkarra tarteko, bukaera eman zioten Gabonetako emanaldi bereziari.



Alzheimerri hizpide Afagiren eskutik. Asteartean Manuel Lekuona kultur etxeko hitzaldi aretoan “Cuidadores” dokumentala ikusteko aukera izan zen. Honetan Alzheimerreko gaixotuen zuzen zuzenaren erakustea da eta euren egunerokoak hausnartzeko parada eskaini zuen. Afagi elkarteok kideek gidatu zuten ondoren bertaratu ziren herritarrekin egindako gaixotasunaren eta zaintzailearen inguruko solasaldia.

Herriko sagardo, talo, gaztaina, musika eta dantza, Santo Tomas azokan

Ttakunek antolatuta gaur arratsaldean burutuko da Okendo plazan

Santo Tomas eguna ospatzen dela eta azoka antolatuko du gaur arratsaldean Ttakun elkar-teak Okendo plazan. Urtero bezala ez dira faltako hotzari aurre egiteko, sagardo, talo eta gaztainak, dantza eta gabon kantauk. Berrikuntza bezala aurreten salmenta postu gehiago egongo dira, eta hainbat produktu salduko dira Okendo inguruan.



Telleri baserriko txerria ekarriko dute urtero bezala Okendo plazara. Txerria izango da Santo Tomas eguneko gauza ikusgarrietako bat.

Lasarte-Oriako talogileak jo eta su arituko dira lanean gaur arratsaldean taloak erre eta jende artean banatzeko. Eta geroari begira, taloak egiten ikasi nahi duten haurrek, horretarako aukera izango dute aurreko urteetan bezala. Taloak egiteko tailerren ederki pasatzen dute haur eta gazteak, irinez eskuak zikinduz eta gero beraiek egindako taloak dastatuz.

Telleri baserriko txerria ekarriko dute Okendo plazara. Talo eta gaztainak 2,00 eurotan salduko dira eta talo-arekin egindako ogitartekoak 3,50 eurotan.

Arratsaldeko 17:30ean hasiko da egitaraua haurren erromeriarekin. 18:00ak inguruan aterako dira Xumela abesbatzakoak plaza inguruan gabon kantak abesteko, gutxi gorabehera 18:30ean Earra! Bertso eskolako bertolariak kantatuko dute eta ondoren hasiko da erromeria. Kukua antzerki eta dantza eskolako kideak, plaza dantza, Erketz, Amaluru-eko musikari eta herriko txistulariak saiatuko dira plazan bildutakoak dantzan jartzen.



Haurrek taloak egiten ikasteko aukera izango dute, talogile “beteranoen” eskutik. Sagardo eta gaztainarik ere ez da faltatuko Okendo plazan.

MUGICA & ABURRUZA

aseguru artekaritza, S. L.

*IBILGAILUAK	*BIZITZA ETA ERRETIROAK	*ETXEBIZITZA ETA KOMUNITATEAK
MOTOZIKLETAK	*OSASUNA	*INBERTSIOAK
AUTOMOBILAK	*ISTRIPUAK ETA GAIXOTASUNAK	*PYMEAK...
AUTOKARABANAK		
FURGONETAK		
KAMIOIAK...		
*MERKATARITZA	*ERANTZUKIZUN ZIBILA	

Ganbo kalea 1, LASARTE-ORIA
Tel.: 943 362275 & Faxa: 943 372413

Donde las estrellas son ellos

Txakurrentzako ilecapaindegia

Txakur eta katuen denda

Eguberri oni!

Txakurraren azala eta ilea zaintzeko BAINUA xaboi ekologikoarekin BELARRIEN GARBIKETA Uzki-guruin GARBIKETA Azkabalak MOZTEA Kuxinak TXUKUNTZEA

Eskaintza guztia 20€

%20 ko deskontua, beraiantzako arropetetan!!

Neguko arropa beraiantzaz ere

Green enparantza 2 behea (Urbarteko parkearen parean) • Lasarte-Oria 20610

Tel.: 943 576313 • info@canneslasarte.com • www.canneslasarte.com

Ongi etorri, Olentzero eta Mari Domingi

Loidi-Barren frontoitik iritsi eta iluntzean haurren gutunak jasoko dituzte Okendon Xixuko eta Porrotx-ekin batera hainbat lagun izango dituzte zain herriko plazan

Abenduaren 24an, astelehenean, iritsiko da arratsaldean Olentzero, Xixuko eta Mari Domingirekin batera Lasarte-Oriara. Okendon dauka herriko haurrekin hitzordua, arratsaldeko 18:00ak inguruan eta bertan izango dira Porrotx pailazoa eta beste hainbat lagun ere. Aurretik Loidi-Barrenen frontoitik Okendora kalejira egingo du trikitalari eta batukadarekin batera. Txintxarri.info-ko lagunak egon dira Olentzero eta Mari Domingirekin beraien base-rrian eta guztia prestatzen aurkitu dituzte, ikatza egiten, astoa garbitzen eta opariak prestatzen.

Loidi-Barreneneko pilotaleku ingurura iritsiko da datorren astelehenean 17:00ak inguruan Olentzero eta handik abiatuko da minutu batzuk beranduago Okendo plazara, Amalurteko Trikitalariarekin eta Dinbi Banba batukadako partaidea zaratasuekin batera.

Kuadrillategi, Gazte Kluba Amaraun ludoteka eta ikastetxeetako gazteek parte hartuko dute kalejira, nahi duten herritar guztiekin batera.

Kriseiluak

Amaraun ludotekako ardura-dunek Olentzeroren ibilbidea argitzeko kriseiluak egiteko gonbidapena luzatu die haur eta gurasoei. Iaz plastikozko edota metalezko poteekin eta laranjekin egindako kriseilu soil eta politak egin zituzten, oso esperientzia polita izan zen eta aurten errepikatzea erabaki dute.

Ondo garbitutako potoe-tan edota barrutik hustutako laranjatan kandela jartzea nahikoa da kriseilua egiteko.

Gazte Klubeko gazteak ere elkartu dira hurrengo astelehenerako jantziak eta kriseiluak prestatzeko.

Gainera, Alboka abesbatzako kideek ere kantatuko dute Okendon Olentzeroren ongi etorria.

Kalejiraren ondoren haurren gutunak jasoko ditu

Olentzerok Okendo plazan, Xixuko, Mari Domingi, Porrotx eta beste hainbat lagunekin batera.

Mari Domingi eta Olentzerorekin egon dira euren base-rrian aste honetan Txintxarri.info-ko lagunak, eta biek esan dutenez, batetik oso lanpetuta dabilta hilaren 24rako guztia prestatzen, baina bestetik Okendoko plazan haurrekin elkartzeko irrikitan ere badaude.

Astoarekin batera

Olentzero ikazkinak jada prest omen dauka banaketa egiteko astoa. Egurrikatza ere egin dute txintxo portatu ez diren haurrei emateko.

Beti bezain goxo, animaliei jaten ematen zien bitartean kontaktu zigun Okendon egongo dela urtero bezala, eta asko gustatzen zaiola plazara jaistea han egoten direlako Xixuko, Porrotx eta beste hainbat lagun.

Egun magikoaren zain dago Mari Domingi ere, irakurtzen ari omen dira jada jaso dituzten eskutitzak, eta astelehenean ere lana izango dutela eskutitzak irakurri eta opariak prestatzen. Txintxo portatu diren haurrek jasoko dituzte opariak gauean.

Xixuko eskoletan

Astelehen eta asteartean Xixuko herriko ikastetxeetan izan



Olentzero eta Mari Domingi astelehen arratsaldean egongo dira Okendo plazan.

da Lasarte-Oriako haurrek Olentzerori egindako marrazkiak jasotzen.

Herriko neska mutilen marrazki horiek Olentzeroren ongi etorria jarriko dira datorren astelehen arratsaldean Okendo plaza itxuratzeko.

Kalejira jendetsua

Ttaku elkarteak prestatuko du Olentzerori ongi etorria. Gutxi gorabehera 17:00etan iritsiko da Loidi-Barreneneko frontoi ingurura eta ondoren, bertan elkartuko diren guztiekin, batukada eta trikitalarien

laguntzarekin abiatuko da Okendo plazara.

Ordu erdiko kalejiraren ondoren Okendo plazan egongo da Olentzero, Mari Domingi, Xixuko eta Porrotx-ekin batera urtero bezala haurren mutxak eta gutunak jasotzen.

M. Berasategi



Kafeak

Eguberri on!

Beti dago aukera kafe on bat hartzeko



Nespresso kafe-makinekin bateragarriak diren kapsulak

INFUSIOAK

- TE BREAKFAST
- TE TXURIA
- TE BELTZA
- TE GORRIA (Pu-Erth)
- TE BERDEA
- TE EARL-GREY
- TE JAVA
- TE CEYLAN
- TE SAPOREAREKIN e.a...

TEINA GABEAK

- MELISA, TILA, KAMAMILA, MENTA, SAGARRA, ANIXA, MAKILGOXO, ROOIBOS, e.a...



KAFE ARABIKOIA

- PARACATU (Brasil)
- TARRAZU (Costa Rica)
- Betiko KOLONBIA



Hipodromo etorbidea 1 • Tel.: 943 361316

20160 LASARTE-ORIA



Olentzerok bere baserritik adierazi digu irrikitan dagoela Okendo plazara hurrekin egoteko.



Mari Domingi eta Xixukok laguntzen diote Olentzerori gutunak jasotzen.



Haurren gutun batzuek irakurri ditu jada Mari Domingik.

Herriko ikastetxeetan izan da astelehen eta asteartean Xixuko Olentzerori hurrekin egindako marrazkiak jasotzen

Giro eta musika ez da faltako plazan, 18:00etatik aurrera Alboka abesbatza eta Amalur trikitixa eskolako neska mutilak jardungo baitira, Bertso Eskolako gazteekin batera. Gabon, kantak, musika, bertsoak... Olentzerori harrera beroa egiteko.

Egun osoan, gabon kantak

Gainera, astelehenean Eguberri bezperan hainbat talde aterako dira gabon doinuak abestuz herriko kale eta baserrietan.

Goizean, 10:00etatik aurrera, Zabaleta auzoan eta

auzo inguruko baserrietan gabon kantak abestuko dituzte auzotarrek eta Landaberi ikastolako ikasle eta gurasoak aterako dira Olentzeroarekin kantuan 11:00etan.

Arratsaldean Alboka abesbatza ere Atsobakar zaharren egoitzan hasi eta herriko kaleetatik barrena ibiliko da kantuan. Bestalde, baserri kantatuko dute Erketz Euskal Dantza Taldekoek.

Beraz jai giroa herriko etxe, baserri eta txoko guztietan zabalduko da egun osoan zehar.



Kriseiluak prestatzen Ludotekan.- Ostegun arratsaldean asteleheneko kalejira prestatzen aritu ziren Lasarte-Oriako Amaraun ludotekan. Dozena bat lagun elkartu ziren, laranja hustu, barruan kandela jarri eta kriseiluak egiten. Astelehenean eskuz egindako kriseilu hauek argituko dute Olentzeroren kalejira.

autobusen

TST

zerbitzua

tsst



Gure herriko autobusak

Azkarra, segurua eta eroso

Tel.: 943 361740 • www.tsst.info

Eguberri jai zoriontsuak opa dizuegu!

Atsedetik ez oporretan

Gabonetan ekintza egitarau zabala prestatu dute udalak eta herriko hainbat elkartek

Gabonetako egun hauetan ekintza ezberdinak antolatatu ditu udalak herriko hainbat elkartekin batera. Santo Tomas feria da guzti hauen artean lehena, gaur 17:00etan Okendo plazan jai giroa nagusi izango da txistorra taloak tarteko. Datzen egunetan Egunerrietako haur parkea, Olentzero eta Mari Domingiren etorrera, ur festa, kontzertu eta Errege kabalgata izango dira besteak beste. Aurten ia ez egin bezala, udalak herriko hiru guneetan jarri ditu Gabonetako argiak soilik aurrezteko asmoz.

Gabonetarako egitarau oparoa antolatatu du udalak herriko hainbat elkartekin batera. Egun hauetan bereziki haurrentzako ekintzak prestatu dira euren oporraldian aspertzeko paradirik izan ez dezaten.

Frontoian, urtero bezala, 0-11 urte bitarteko haurrentzat puzgarriak, jokoak eta eskulanean egongo dira. Azken honen baitan hainbat tailer burutzeko aukera izango da besteak beste malabarrak, birziklatutako materiala lantzekoak, ludotekako bat ere egongo da, puzgarriak, bola igerilekuak eta guzti honetaz gain, EHP osoan zehar euskarazko hiru emandaldi berezi ere egongo dira.

Gaurkoan Ttakun kultur elkartearen eskutik Santo Tomas azoka izango da Okendo plazan arratsaldeko 17:00etatik 20:30 bitartean eta bertan talo eta txistorra postuak, gaztainak eta sagardoa izango dira besteak beste. Ohi bezala txerria ikusgai izango da eta Amalur eskolako trikuliariek girokotu dute jai bertsoariekin batera. Erromeria Erketz EDT-ko lagunekin egingo da eta haurrentzako tailerrak ere egongo dira.

Tenisean berriz, 12-14 urte bitarteko gazteentzako karpak eraldoi bat egongo da.

Karpa klimatizatu honetan jokoak ezberdinak izango dira: futbolin eraldioak, ping pong mahaiak, air hockey-a, scalextric eraldioa, zezen mekanika...

Haur parkea

Datozen egunetan berriz, bada herrian Gabonetako egun hauetan zer eginik. Abenduaren 22an Egunerrietako Haur Parkearen lehen eguna izango da Michelingo kirol gunean eta abenduaren 31 arte zabalik izango da.

Parkearen ordutegia 11:00etatik 14:00etara izango da eta arratsalde, 17:00etatik 20:00etara eta 250 pertsonentzako aforoa izango du udalak jakitera eman duenez. Aurten Egunerrietako parke berezi honen adinaren araberako bi gune ezberdin izango ditu.

Gune honekin pozik azaldu da udala "aurtengoa adin tarte zabalago bat hartu nahi izan dugu EHP-aren planteamenduariekin eta horrela eskaintza hobea bat egin".

Langabetuak EHP-an

Honetaz gain, parkearen kudeaketari dagokionez udalak azpimarratu nahi izan du "aurtengoa herriko Langabetuen Plataformari eman zaio sarrerren salmenta eta tabernaren kudeaketa".

Irabaziak Plataformarentzat izango dira bere osotasunean eta "honen bitartez Lasarte-Oriako udalak nolabait gure herrian egoera ekonomiko larria pairatzen ari



Egunerrietako haur parkeak aurten 12-14 urte arteko gazteentzako gune berezia izango du.



Lartaun abesbatzaren emandaldia izango da abenduaren 28an.

diren langabeei lagundu nahi izan die ekimen honekin".

Gainontzean sarrerari dagokionez herritar guztien eskura egon dadin ere, helduiek euro 1eko sarrera ordaindu beharko dute eta haurren kasuan doako izango da parkera sartzea.

Ur festa

Abenduaren 24ean Olentzero eta Mari Domingiri ongi etorria egingo zaie Okendo plazan Ttakunek antolatutako jaialdian. 17:20ean hasita, Loidi-Barreneko pilotalekuk kalejira egingo da eta 20:00ak bitartean irarango da jaialdiak.

Abenduaren 26an kiroldegian haurrentzako ur festa eraldioa antolatuko da 10:00etatik 12:00etara eta bertan parte hartu ahal izan-

go dute 2000-2007 urteen bitartean jaiotako haurrek.

Kiroldegiko arduradunek gogoratzen dute umeak bakarrik sartuko direla igerilekuan

eta igeri egiten jakin behar dutela parte hartzaile guztiak. Behintzat olagarro maila eskatzen zaie umeei parte hartu ahal izateko.

Musika komentuan

Abenduaren 28an Oartzungo Lartaun abesbatzaren kontzertua entzun ahal izango da Ama Brigitarren komentuan 19:30etik aurrera.

Maddalen Dorronsorok zuzendutako taldeak emandaldi polita aurrerikusten du. Lehen zatian kanta erlijiosoko eskainiko ditu abesbatzak eta pianoan Amaia Dorronsoro herritarren laguntza izango du.

Bigarrenean berriz, euskal gabon kantak, jai giroko kantak abestuko dituzte entzuleen gozamenarako.

Abesbatzak 1964. urtean hasi zuen bere ibilbidea eta 70. hamarkadan asko izan ziren eskuratutako sariak. Danok Kide elkarteak antolatutako kontzertua da hau eta sarrera irekia eta doakoa izango da ohi bezala.



Hiru erregeen etorrera berezia izango da aurtengoa, Udaletxe berritik agurtuko dituzte haurrak eta honen sarreran hartuko dituzte euren eskutitzak.

Erregeak Udaletxe berrira

Urtarrilaren 5ean Erregeen Kabalgata egingo da MEGABA elkartearen eskutik. Goizeko 12:00etan hasiko dute eguna eta Okendo plazan erregeen laguntzaileak egongo dira haurren eskutitzak jasotzen. Bertan ere haurrentzat tailerrak antolatuko ditu elkarteak.

Arratsaldean berriz, 18:00etatik aurrera Oriatik abiatuta Erregeen kabalgatari hasiera emango zaio.

Aurtengoa berrikuntza izango da desfilean izan ere, Hiru Erregeek udaletxe berriko hainbat agurtuko dituzte

Kurasekin bilera bihar, abenduaren 22an izango da 17:30ean, Ttakun Kultur Elkartearen gazte lokalean eta gaur da honetan izena emateko azken eguna.

Zinema

Manuel Lekuona kultur etxean egun hauetan ere izango da zer ikusia.

Abenduaren 23an 17:00etan "Las aventuras de Tadeo Jones" haurrentzako film arrakastatsua ikusi ahal izango da.

Abenduaren 27an berriz 21:30ean eta 30ean 19:30ean helduentzako "A casa por Navidad" filma eskainiko da eta abenduaren 30ean ere haurrei zuzendutako "Hotel Transylvania" 17:00etatik aurrera.

Argi gutxi

Egitarauaz gain, bestelako azalpenak ere eman nahi izan dituzte udaletik Gabonak direla eta.

Horrela Gabonetako argiegi dagokionez, aurtengoa, ia egin bezala, oso argi gutxi jarri dituztela eman dute jakitera.

Azaldu dutenez aurreteko erabakia izan da hartu duena. Izan ere, "argi hauek ez dira udalarenak eta urtero alokatu behar izaten dira honek suposatzen duen gastu handiarekin. Diru xahutze bat da gure ustetan," adierazi zute. Gainera "argiaren kostua ere ordaindu behar dela" azpimarratu nahi izan dute.

Hau dela eta udalak soilik herriko hiru puntutan kokatu ditu argiak, udaletxe zaharreko balkoian, Atsobakarren eta Brigitarren plazan.

Hiru gune hauetan jarritako argiek 6.000 euroko gastua eragingo dutela azaldu nahi izan dute eta "gure ustetan nahikoa eta gehiegi da bizi dugun krisi ekonomiko garai honetan".

Udalak bestalde, egun hauetan askoz erosketak gehiegi egingo direla jakitun, gonbita egin die "herritarrek kontsumitu behar badute, herrian kontsumitza gonbidatu nahiko litzuke, komertzio txikiak berdin herri bizia".

Gabonak Atsobakarren

Herrian hala ere, haurrentzako egitarauaz gain bada Atsobakarreko egotzian dauden aitona-amonentzako ekintza berezirik.

Bertan Gabonak ospatzeko egitarau gaur hasiko dute Gabonetako pregoia eta Santo Tomas festarekin eta Egunerrietako kontu-kontuarien bisitarekin. Gozogintza tailerra burutuko dute eta mezak izango dituzte aukeran besteak beste. Guatemalari buruzko hitzaldi berezia izango dute Jose Antonio Muñiz De Ana-aren eskutik.

Abenduaren 24an, zuhaitza piztu eta Musikoterapia saio berezia egingo dute. 25ean bazkari bereziaren ostean jaiotza bizia eta Gabonetako kantak abestuko dituzte. 26an jalguneko lagunen bisita izango dute

eta 27an, osteguna, Emakumearen Zentro Zibikoaren Batuka ekitaldia eta Biyak Bat elkartearen Aerobik saioa ikusiko dituzte. Semblante Andaluz-en emandaldia berriz, Emakumearen Zentro Zibikoaren "Caminito a Belén" antzerkiak gozatu dute eta larunbatean Semblante Andaluz-en emandaldia berriz. Urteari amaiera emango diote afari eta festa handiarekin.



Urtarileko lehen egunetan iterea egingo dute Brigitarren komentura eta Bingo berezia izango dute. Nagusilaneko abesbatza ere bisitan izango dute eta Irune Galaneren biolontxeloaren doinuak entzungo dituzte. Erregeei harrera egingo diete eta oparien banaketa egingo da. Egun berezi hauetan Atsobakarren ere ez da aspertzeko tarterik izango.

Garcia
AUTOBUSAK
 Nafarroa etorbidea 32-2.A
 (Leku Eder etxea)
 Tel.: 943 372737
 20800 ZARAUTZ

Ondo pasa gabon jaiak !

Edozein eratako bidalak egiteko zerbitzu proposak.

Bestelako zerbitzuak.

Egunerri zorientsuak opa dizuegu!
Urteberri on!

ALBA
ARROPA DENDA

KOOKAI
 NAFNAP
 YERSE

Nagusia 65 behea • Lasarte-Oria • Tel.:943 574450

Danok Kideren jaiotzak

Gaur lehiaketarako lanak jasotzeko azken eguna

Danok Kide elkarteak, bere XX. jaiotzen lehiaketa antolatuta du aurten eta gaur izango da azken eguna lanak aurkezteko. Iaz 34 jaiotza izan ziren lehiatzen adinaren arabera lau talde desberdinetan eta epileek ez zuten lan erraza izan. Herrian dagoeneko errotuta dagoen lehiaketa honetan banaka zein taldeka har daiteke parte beti ere lan bakarra aurkeztuta.

Betebeharren artean, jaiotzak gehenez, 80x60 zm-ko neurriak izan behar ditu eta, batez ere, ez da onartuko hondo sendorik ez duen lanik. Aurreko urteetako lehiaketetara aurkeztutako proiekturik ere ez da hartuko antolatzaileek azpimarratu moduan. Jaiotzarekin gutun-azal batean egileen izenak sartu eta azalean parte-hartzaile edota taldearen adina idatzita

entregatu behar da. Jaiotzak gaur aurkezteko aukera dago 17:00etatik 19:00etara Danok Kide elkartearen egoitzan Blas de Lezo kaleko 11-13 zenbakian. **San Pedro elizan** Lehiaketara aurkezten diren lan guztiak Gabonetan San Pedro elizan izango dira herritarrentzat ikusgai eta urtarillaren 1ean emango dute jakitera irabazlearen



2011ko irabazleek euren lanak erakutsi zituzten sari banaketa egunean.

izena ekitaldi berezian. Saria 6-9 urte artekoentzat, lehenengoarentzat 60euro eta bigarrenarentzat 40 euro. 10-13 urte artekoentzat, 70 eta 50 euroko sariak daude; 14-17 urte artekoentzat, 90 eta 60 eurokoak eta azkenik, helduentzat 120 eta 90 euroko sariak prestatu dira.

Zer eskatzen diozu Olentzerori?



Pablo Barrio

Umetan ederra da Olentzerori gutuna idaztea; heldutan, ordea, alperra, gu geuzatzen baikara, eta ez beste inor, geure etorkizunaren arduradun. Jendarte justua ipartzat hartuta, adorez eta ententimenduz jantzia, lema hartu herriak herria egitea daukagu, heldutan, ederrena. Herriak herria egitea baitaukagu, azkenean, benetako demokrazia. Pasibitatea dugu etsai, indibidualismoa galbidea, auzolana irtenbidea.



Estixu Alkorta

Garai latzak bizi ditugu eta ezinbestekoa zaigu bide berriak urratzea Lasarteoriaren ongizatea bermatzeko. Gure lehenengo eskaria, hori lortzeko asmoarekin egiten diogu Olentzerori. Lan duina eta egonkorra herritar guztiarentzat. Bestalde, pozik eta itxaropentsu sentitzeko arrazoiak ere baditugu bake garaia dugulako aurrez aurre. Olentzerori ere eskatzen diogu errespetuan eta konfiantzan oinarritutako bizikidetzaren ekarpena.



Jesus Zaballos

Lasarte-Oriako PSE-EE alderditik 2013. urte berri hori begira, zera eskatzen dugur, ardura politikorekin jokatuz, guztien batasunarekin eta elkarlanean, gure gizartean bizi dugun krisi ekonomiko larriari eragindako arazo larri horiei nolabaiteko konponbidea eman ahal izateko politikagintzatik. Honekin hainbeste eta hainbeste urtetako lanaren ondorioz denon artean lortu dugun ongizatea gizartea mantendu ahal izateko.



Ana Isabel Prieto

Itxaropena eta fedea eskatu nahi genioke. Itxaropena bizi dugun krisi egoerak hobera egingo duela sinestu eta konponbidea ahalik eta lasterren iritsiko dela ikusi eta fedea izateko. Elkartasuna momentu honetan egoera okerreten dauden herritarrentzat eta Olentzerok zerbitu sobran badu, diru estra bat eskatuko genioke Lasarte-Oriako udalarentzat bere eginkizunak, hain beharrezkoak diren zerbituak hobetze lan, burutu ahal izateko urte berrian.



Vanessa Velez

Olentzerori bakoitzak behar duena ekar diezaien eskatuko niok. Benetan pentsatzen dut datorren urtea hobea izatea guztion esku dagoela. Beraz, Olentzerori lagundu behar diogu langabezia eta krisi ekonomikoaren ondorioekin bukatzeko lanetan. Pertsonalki bi gauza eskatuko dizkio, maite ditudan pertsonak osasun ona izatea datorren urtean ere eta zerean euskara hobetzea. Norekin eta urte berri on lasarteoriatar guztiarentzat!

Oso ondo pasa Gabon jaietan!

ERAKUSKETA ETA DENDA
Geltoki kalea 21 • LASARTE-ORIA
Tel.: 943 363147

info@illarreta.com

TAILERRA ETA BULEGOA:
Ugaldea polig. 8 • Tel.: 943 361752
USURBIL

- Zink, berun eta arbelean eraikuntzak eta konponketak
- Instalazioak: garbitzeko ura, berogailua, gasa, zoru bero-emalea eta aire girotua
- Erakusketa eta salmenta: aparatu sanitarioak, kanilik, komuneko altzariak, manparak eta osagarriak

- Igeltserotza orokorra
- Etxebizitza eta lokalak berrikuntza osoa
- Gremioen kordinazioa
- Arreta pertsonalizatua



Emun Serrano

Tipikoa. Behin adinean aurrera goazenean osasuna eskatzen dugu. Zartosiarekin hasi gara gainera. Eta lana ere bai: oraindik daukagunoi, gerora ere ez falta-tzea. Eta ea ekonomia suspertzen den. Alternatiba ekonomikoei buruzko liburu bat irakurtzen ari naiz eta konponbidea ez da etorriko murrizketatik, soldata duinek, lasaitasunak, ekonomia aktibatu egiten dute eta. Osasun arazo gutxiago ere egoten da.



Asun Garcia eta Idoina Arce

Lana eta osasuna eskatzen diogu guk ere Olentzerori 2013. urte berriarako, hemen, mundu guztiak bezala. Eta aurretik jartzen dugu osasuna, lana egiteko osasuna behar beharrezkoa da eta. Hori izaten da lehen tasuna. Latza dator urte berria, hasi dira jada murrizketekin, extrak kendu nahi dizkigute, soldata jaitsi... Guk behintzat momentuz lana badaukagu eta ea urte berrian horrela segitzen dugun.



Patxi Etxeberria

Aurrera, osasuna denentzat, hurrena, pakea denentzat eta lana gazteentzat. Horiek lanean jartzen ez baldin badira, hurrengo urtea txarra izango da oraingo baino. Gazteak joan behar du lanera eta gazteak altxa behar du herri hau. Bestela gurek egin du. Gurea jada bukatuta dago, gazteak ez badute egiten jai dago. Hori martxan jarri beharra dago, gaur egun, gazteak oso prestatuta daude eta sasoi.



Nahia Urmestazu eta Uxue Rodriguez

Momentu honetan, ekonomia ez dabil oso ondo, beraz, krisia konpondu eta amaitu dadila, hori eskatuko diogu 2013 urte berriarako. Gure lagunak argazki-kamera bat eskatu dio, hori ondo dago, baina gure uestez aurretik dago bestea, lehen tasuna, gure gurasok lana edukitzeak dauka. Gu gazteak gara, ez gara osasuna eskatzen hasiko. Eta ea 2013 urte berria ona den guztiarentzat.



Joaquin Rodriguez

Nik osasuna eskatuko diot, hori da inportantea: osasuna, guztiarentzat. Lana beharrezkoa da baina osasunaren atzetik dago. Gaur egun ekonomia aldetik oso estu gabilta, baina osasuna da lehenengo. Gaizki zaudenean ohartzen zara horretaz, edo hurbil zerbitu txarra gertatzen denean, min handiena horrek ematen ditu. Denok ondo egon gaitzela. Ondoren dago lana hobetzea eta oro har inguruak lana eduki dezatela.

Alustiza Autobusak

Alustiza Bidaiak, S.L.

Palazio etxea, Laurgain auzoa • AIA
Tel.: 943 132893 / 830808
Mobila: 656 782999

Eguberri on!

Eguberri on!

Geltoki kalea 21 • Tel.: 943 362467 Faxa: 943 372794 • Lasarte-Oria
E-maila: muebleszubi@hotmail.com

Islada Ezkutatuak Oroimen historikoa berreskuratzeko Lasarte-Oriako taldea

“Premiazkoena testigantzak jasotzea da”

Oso harrera ona izan du 1936ko gerra garaiko istorioak jasoko dituen taldeak

Islada Ezkutatuak, izena jarri diote oroimen historikoa gorde dadin lana egingo duen Lasarte-Oriako taldeari, "propio, ezkutatuak hainbat urtetan derri gorrez ezkutatu edo isilduak izan direlako" Aurreko ostegunean Villa Mirentxun aurkeztu zuten eta jendez gainezka egon zen aretoa. Galdera asko ditu taldeak egiteko, baina guk ere galdera batzuk egin genien orain arte egingdako lana eta gerorako asmoak ezagutzeko.



Islada Ezkutatuak taldeko partaideak itxaropentsu dira herritar askok gerra garaiko gertaerak kontatzeko gogoia adierazi dutelako.

Jon ALTUNA IZA

Harrera oso ona izan du "Islada Ezkutatuak" 1936ko gerra eta ondorengo urteetan Lasarte-Orian gertatutakoak jasotzeko sortu den taldeak.

Taldeko partaideek esan dutenez, lehenengo lana adineko pertsonen testigantzak jasotzea izango du. Beraien ustez, asko dira herritar berrak jaso dutena kontatzeko prest daudenak. Horretarako taldeko kideekin jarri daitezke harremanetan, argazkian ageri dira, eta telefono zenbaki bat ere eman dute: 695 756 556.

Ostegunean aurkeztu zuten Islada Ezkutatuak. Zer nolako harrera izan duzue?

Espero genuena baino hobea. Beldurra genuen, soilik dozena erdi bat lagun azalduko ote ziren, baina aretoa bete egin zen: Zutik, eserita adina, zeuden. Eta ez hori bakarrik, jendeak parte hartu egin zuen, hizketarako gogoarekin hurbildu zen.

Harrera eta jarrera ona beraz...

Bai, zalantzarik gabe. Zenbaitek pentsatu zuen, "ba zen garaia, guk hainbat kontatzeko modua izateko".

Konturatu gara jendea hitz egiteko gogoarekin dagoelako izan duela harrera ona. Jende askok zuen hau buruan duela urte batzuek, guk genuen bezalaxe. Gu ere askotan mintzatu gara honetaz, baina ez zen gauzatzeko momentua heltzen. Behin taldea sortu eta aurkeztuta jende asko etorri zaigu gogoarekin eta ez-ustekoak izan ditugu. Oso gertukoak kontatu dizkigute espero ez genituen hainbat gauza.

Aurkezpena baino ordu erdi lehenago Villa Mirentxun ziren batzuek "gauza asko ditut kontatzeko" esanaz.

1936ko gerra bizi izan zutenen testigantza jasotzeko asmoa duzue beraz, ezta?

Gero ez dakigu zer egingo dugun informazioarekin, baina, jasotzeko dauka urjentzia.

.....
Ez-ustekoak izan ditugu.

Oso gertuko herritarrek kontatu dizkigute espero ez genituen hainbat gauza.

Deia luzatu duzue herritarrek oroitzen dutena kontatu dezaten, sumatzen dut itxaropen handia duzuela?

Bai. Eta uste dugu gaiari pixka bat berandu heldu diogula. Ez zen egin esate baterako duela 15 urte. Beste herri batzuetan gauza dextente egin dira, norbaitek bideak ireki ditu, jendea lasaitzen ari da gai honekin, eta agian orduan lortuko ez zena orain lortuko dugu. Gure alde jokatzeko du horrek, hitz egiteko hainbeste beldurrik ez izateak, baina bestalde galdu ditugu testimonio batzuek.

Iñaki Egaña konkretuki informazioa biltzeko zailtasunak aipatu zituen...

Bai, herria ez zenez Udaltexu ezberdinetan dagoelako.

Ikerketan bestela ere zailtasunak izango ditugu. Dena den, informazio asko dago, begiratzen hasi eta lubakiei edo gerrako fronteari buruzko hainbat datu jaso ditugu intern, liburu eta abarretan. Aurten jakin dugu fusilatutako ere izan zirela Lasarte-Orian. Informazioa jaso, zerrenda batzuek egin eta ikusi genuen, zantzu batzuek bagenezkela tiraka hasteko eta ikerketa serioago-zorrotzago bat egiteko.

Zerbait aipagarria esan al zuten Iñaki Egaña bere hitzaldian?

Olinpiaden kontuak harritu gintuen. Berlinean egin behar ziren, gero alternatiboak Barzelonan, Katalunian muga pasatzeko zailtasunak egon ziren, Irundik hasi omen ziren

kanpoko kirolariak pasatzen eta atzeritarrek ostatu hartu omen zuten Lasarte-Orian.

300 pertsonaren zerrenda aipatzeko ere harritu gintuen, baina kontutan izan behar da 15 egunetan gerrako frontea hemen egon zela eta denak ez zirela bertakoak izango.

Andoain bonbardatu zuten abioiak Hipodromotik ateratzen omen ziren.

Villa Mirentxun aurkeztu zutenen, gerra Komandantzia izandakoan, nahita izan al zen?

Bai. Gero ez zen erosoia izan, jende asko joan zelako eta zutik egon behar izan zirelako.

Txiki geratu bazen, babesa ere bada hori taldearentzat...

Bai, noski.

Nondik hasteko asmoa duzue? Premiazkoena testigantzak jasotzea da. Batez ere adineko pertsona batzuen. Hortik hasi beharko da.

ETXEZARRETA

HARATEGIA

Eguberri jai zoriontsuak opa dizkizuegu!



Hipodromo etorbidea 2 • Tel.: 943 361379
LASARTE-ORIA





Islada Ezkutatuak taldeko bi partaide eta Iñaki Egaña historialaria, ostegunean Villa Mirentxun egin zen aurkezpenean.

Azkar egin beharko da lana adinean aurrera doazelako?

Hori da. Poxa eman zigun 90 urtetik gorako pertsonak aurkezpenean ikusteak.

Herrian zenbat dira gerra eza-gutu eta bizi direnak?

Asko ez. Eta denak ez ditugu ezagutzen. Etorri zirenak ikusita, denok hartu ditugu ezustekoak.

Kontatzeko gertaera kopurua eta gerraren ezagutza maila ere desberdina izango dute...

Kontuan izan behar da, orain 90 urte dituenak orduan 14 urte zituela. Mutil edo neska koskorak ziren eta oso gertuko gauzak gogoratzen dituzte umeez, etxeko kontuak.

Badakigu, gerra ostean 12 urteko umeei jipioiak eman zizkietenla euskaraz hitz egiteagatik. Ume zirenek eskolan sofritu zituzten zigorretaz asko izango dute esateko.

Badira fusilatutako edo kartzelan egon zirenak, baina

..... Kontuan izan behar da, orain 90 urte dituenak orduan 14 urte zituela. Mutil edo neska koskorak ziren eta ez dira asko bizirik.

apagarririk dira herrian gelditu zirenak ere, amek, emakumeek edota seme alabek jasan zuten gosea eta miseria.

Etorri batzuek egongo dira beste toki batzuetan "sofritu" zutenak gerra... Testigantza horiek jasoko al dituzue?

Gustatuko litzaziguke. 60. hamarkadan etorri ziren etorkin asko desterratuak etorri ziren. Jon Maia bertsolariak kontatzen du bere familiakoak ez zirela etorkinak deportatuak baizik. Kasu askotan, etorri zirenak egurtuta zetozen. Zailtasunak izango ditugu horretara iristeko.

Duela zenbat denbora hasi zineten egitasmo honekin.

Iazko martxoan. Aurretik

lubaki baten arrastoarekin ibili ginen.

Lubakiak 15 egunean frentea hemen egon zelako...

Andoaindik Lasartera ailegatu ezinik 15 egun. Donostia hartu aurretik. Herrikoek ere parte hartu zuten, baina trabatuenak kanpokoak ziren.

Lasarte eta Oriaren arteko orain hasi gara ulertzen. Garbi ikusi dugu hemen bi gizarte zeudela, aparteokoak, Lasarte aldekoak nekazariak, nazionalistak ziren eta Oria industrializatuan, fabrikaren inguruan, sozialista, komunista eta anarkistak, denetarik zegoen. Bi mundu ziren. Bi ikuspegi ezberdinetatik bizi izan zuten gerra.

Administrazio aldetik zati-tuta eta gizartea ere bai.

Batzuek mina, lotsa, gosea, besteak berriz gloria, gerra garaian sufritua da gure Lasarte-Oria. Irabazleak nahi dun gisara idazten du historia, guk zuengandik jaso nahi dugu ezkutuko memoria.

Islada Ezkutatuak taldeak zabaldu zuen bertsoa

Denetarik zen beraz jazar-tuen artean...

Ziurtatu dugu bost lasarteoriar gutxienez fusilatutako izan zirela kanpoan eta gutxienez beste bost kanpotar Lasarte-Orian fusilatutako. 19 izan daitezke hildako herritarrik.

Gerra galdu zuten gehienek gero kristoren pasada hartu zuten, frentean ibili zirenen senideei isunak jarri zizkieten, etxeak kendu, lanik ez eman. Hori dena pasatzea oso gogorra egin zitzaizen. Bazen egun osoan zer eginik ez eta egunero Santa Barbarara joan, bolotan ibili eta etxera itzultzen zenik.

Oria auzoa hustu egin zen eta Lasarteko parte handi bat ere bai. Horietatik zenbat itzuli ziren? Gehienbat base-ritarrak gelditu ziren, baina zerbaitean aritu zirenak garbitu edo zigortu egin zituzten, baita errepublikaren administrazioarentzat lan egin zutenak, maisu eta abar.

Zerrenda batean zeudenek ez zuten lanik. Eta bestalde, lana eta mesedeak ere batzuek izan zituzten.

Fusilatuek ez dute hitz-egiterik, noski eta senideei ere asko kostatzen zaie...

Askok oraindik beldurra daukate, bileratik gu pozik joan ginen bezala, asko eta asko barrenak astinduta joango zirenen etxera. Irudi gogorak zabaldu ziren eta beraientzat gogoratzea ez da eroso.

Ahal dena jasoko dugu. Urte asko pasa dira ordutik, eta trantsiziotik ere beste hainbeste, eta ez da ezer egin, dena ezkutatu da egon da, beraz, buruan frustrazio handia edukiko dute askok eta horrek pisu handia du.

Lan handia duzue, testigantzak jaso eta datuak biltzen... Galtzak bete lan izango dugu.

Lan horietarako laguntzarik izaten al da?

Asmoa daukagu gai hauetan dabilzan adituekin harremanetan jartzeko, talde horiekin kolaboratu eta euren lana gurtzati baliagarri den ikusteko.

Zer garrantzia ematen diozue oroimen historia berreskuratzeari-zaintzeari?

Ispilu hautsiaren irudia erabili dugu, gure burua errekonozitzeko, azken finean, jakin behar dugu zein garen eta nondik gatozen. Guk ispilu horri begiratzen diogunean zulo beltz asko daude, ez dago osatua, horregatik jakin nahi dugu zer gertatu zen lehenengo, gero zein garen jakiteko.

Batez ere Lasarte-Orian, bere historia eta soziologia ikusita. Euskal Herriko historia jakiteko autodidakta izan behar dugu, eta herriko historia ezagutzeko ere bai. Orain arte ez da kontaketa egon, eta beraz osatu egin behar sakabanatutako puzzlea.

Ez al dira iraganeko kontuak? Ez atzo goizekoak dira.

Biloben lana al da kontaketa hori osatzea?

Hori esan zuen Iñaki Egaña, biloben iraultza dela. Argentinan amonak izan ziren eta hemen bilobak. Gerra pasa zuten askok ez dute kontaktu, beldurra, gorrotoa eta hainbat sentimendu kontrajarri zituztelako, hurrengo belaunaldiak, aldiz, jakin nahi izan dute eta gurasoei galdetu. Dena den baziren beste batzuek, kontaktu behar zutela argi izan zutenak.



Errazioak
Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Entsaladak

Oso ondo pasa Eguberri jaietan !

Eguneko menuak

Tel.: 943 37 17 42

Largonea Kalea, 1
20160 Lasarte-Oria

facebook.com/ArkupeTaberna

On Manuel Lekuona gogoan

Besteak beste, gure herriko burujabetza lortzeko ahaleginetan ere nabarmendu zen

On Manuel Lekuona zendu zela 25. urteurrena bete den honetan, gogora ekarri nahi izan dugu egundoko gizon hau, ez gehazki bere biografia zabal, bikaina, oparoa eta miresgarri guztia azaltzeko, ez genduke ehunetik bat ere aipatuko, batez ere gure herriarekin zer ikusi zuzena izan duten hainbat gai edo gertaeraz hitz egiteko.

Sebastian KEREJETA

On Manuel Lekuona Etxabeguren, Oiarztzongo Etxetxiki baserrian jaio zen 1894. urteko otsailaren 9an eta kontaezin ahala lan egin eta gero 1987. urteko uztailaren 30an hil zen bere jaiotako herrian. Apaiz apaia, jakintsua, langilea eta euskaltzale sutsu honek, besteak beste, euskara eta euskal kulturaren munduan izugarriko ondarea utzi zuen bere ibilbide luzean, nahiz irakasle, idazle, ikertzaile, hizkuntzalari, itzultzaile, Euskaltzaindiko buru eta hemen izendatzeko gehiegi diren beste hainbat eta hainbat lanen bitartez, bertsolariaren ikerketa adibidez. Ondo merezitako hamaika eskerron eta omen ere jaso zituen. On Manuel, kontu ezin lagunekin harremana izan zuen eta norbait aipatzearen On Joxe Miguel Barandiaran

ikaskide izan zuen, eta Resurrección Maria Azkuerekin ere lankidetzan aritu zen Euskaltzale aldiakarian.

Lasarten bizi izan zen

Lasarte-Oria oso maitea zuen. Hala beharrez, bolada batean gure herritar izan baitzen.

1936ko gerratearen hasieran bere bi anai fusilatu zituzten eta bera gogor jazartaria; egoera larri hartan izkutatuta egin behar izan zuen; On Antonio Abaunzt kapilaua bitarteko, Lasarteko Moja Brigitarren Komentuan hartu zuten eta bertan bizi zuen kapilauaren etxean gordeta lau urte eta bost hilabetez bat ere atera gabe.

Baina, bitartean ez zen geldirik egon. Besteak beste, Lasarteko San Pedro Parrokiko eta Brigidatarren Komentuaren historia, baita Lasarte-Oriako kondairako hainbat agirien altxorrak zehatz mehatz ikertu, antolatu, idatzi eta jasota utzi



On Manuel Lekuona apaiza euskaltzale sutsua izan zen eta Lasarte-Oriako Ama Brigitarren komentuan egon zen.

zituen. Besteen artean 1941eko otsailaren argitaratu zen lana dago, Lasarteko auzo eta auzotarren jatorria, eta aitzinako bide zahar eta etxeen ezaguera eta izaera jasotzen duena. Lasarteko mojak zaindari duten Pozezko Amari, eskainitako ereserkiaren letra eta musika idatzita utzi zien bere esker onez On Manuel

Lekuonak, eta oraindik ere abesten dute mojak hainbat elizkizunetan.

1941. urtean Calahorrara erbesteratu zuten eta han ere hamaika atzerketen ondorioz balio handiko aztarren usari topatu eta jaso zituen, Eskal Henrikoak tartean. 1955ean Euskal Herrira itzultita, Andoaino Pedro Arregi apaizaren etxean bizi

izan zen, Jesusen Alabak mojen komentuko kapilau zereginaz gain, beste hainbat lanetan buru-belarri jarraituaz, 1975an, bere jaiotako herria itzuli zen, Oiarztzuna.

Lehen esan bezala, Lasarte-Oria asko maite zuen eta herriaren burujabetza lortzeko ahaleginetan ere nabarmendu zen. Hainbat



Manuel Lekuona behelko ilaran ezkerrekoa. Goiko ilaran, eskubitik hirugarrena guda zibilean fusilatutako Martin anaia.

1936ko gerratean On Antonio Abaunzt kapilaua bitarteko, Lasarteko moja brigitarren komentuan hartu zuten

San Pedro Parrokiko eta Brigitarren Komentuaren historia, baita Lasarte-Oriako kondairako hainbat agirien altxorrak zehatz mehatz ikertu, antolatu, idatzi eta jaso zituen

Lasarte-Oriako burujabetza lortzeko ahaleginetan ere nabarmendu zen, hainbat medioetan bere iritzi baikorra idatzi eta argitaratuz

mediotan bere iritzi baikorra idatzi eta argitaratuz eta baita herritarrei hainbat hitzaldi eta ekimen eskainiz egoera argituz, eta, nola ez, parte hartzen zuen foro eta instituzioetan bere ospe eta jakinduriaren eraginez, iritzi baikorra, tinkoa eta eraginkorra adieraziz. Bidelagun bikaína izan zen.

Gure herriko ereserkiaren letra ere berak idatzia da, musika berriz Jose Antonio Mertzero musikagile lasartearrak sortu zuen.

Kultur-etxea

1988. urtean Lasarte-Oriako udalak, Frigorífica Guipuzcoana, S.L. enpresari, une hartan Tedoso Zinemaren egoitza zena erosi zion, eta eraikina birmoldatu ondoren, 1993ko otsailaren lehendabiziko egunean inauguratu zen gure Kultur Etxea.

Hilabete batzuk izenik gabe egon ondoren, 1993ko azaroaren 19ko Udaltzatza-

rrak "Manuel Lekuona Kultur Etxea/Casa de Cultura Manuel Lekuona" izena jartzea erabaki zuen, nahiz oposizioeko talde guztiak izena euskaraz bakarrik jartze aldekoak izan.

On Manuel, urte askotan zehar, igandero, Añrgan meza eman ondoren, Lasarte-Oriara etorri ohi zen bere arreba Juliana, Juanito Unanuekirekin ezkondua, eta bere familiar bi bita egin ez elkarrekin bazkaltzera; bazkalondan, giro ederrean kantuan saio bat eginda pozik joaten omen zen hurrengo igandean arte. Bere ilobak Zumaburuan bizi dira orain ere.

Neronek ere ezagutzeko ohorea izan nuen, meza ondoren, Añrgan autobusa-erretoretan zain zegoela, pasaren kotxean hartu eta elkarrekin kontu kontari etorri ginen hainbat aldiz Lasarte-Oriara. Gizon oso atsegina eta maitagarria zen.

Goian bego, eta gure esker ona berarentzat.



Manuel Lekuona Francisco Escudero konposagilearekin. Lekuonak Lasarte-Oriako ereserikiko hitzak egin zituen.



Nafarroako Aldundiak Xalbadorri egindako omenaldian parte hartu zuen Urepelen.



MEKANIKAKO TAILERRA

DIMETAL S.A.

ZERBITZU OFIZIALA

LOMBARDINI

SAN JOSE-OLAIZ

- Kamioien txasia konpontzeko oinarria.
- Aluminiozko eta burdinazko soldadurak.
- Industriako ibilgailuen konponketa.

Eguberri on!

Orduetgia: 8:30 - 20:30

Zirkuitu ibilbidea 6 • 20160LASARTE-ORIA • Tel.: 943 361857 • Faxa: 943 366508

Eguberriak musikaz blai, ospatu alai!

Lasarte-Oria

Kale Nagusia 39 • Lasarte-Oria
Tel.: 943372668
Faxa: 943 370737

Floren eta Milagros Mendizabal Anaiak arropa dendako jabeak

44 urte Lasarte-Oria janzten

Mendizabal familiak 1969an jarri zuen Anaiak denda. Bihar itxiko ditu bere atekak

Lasarte-Orian egun arropa denda ugari dago. 70. hamarkadan, gutxi batzuk zeuden eta horietako bat dugu Anaiak jantzi denda. 1969an, Mendizabal familiak haur eta etxeko arropa saltzen zuen denda ireki zuen. 44 urte izan da gure herrian. Orain Floren eta Milagros Mendizabalek erretiroa hartuko dute eta bihar, abenduaren 22an, Anaiak denda itxiko da. Jabeekin izan gara urte hauei buruz solasean.

Nerea EIZAGIRRE

San Jose egunean 44 urte beteko zituen dendak. Ze bizkor pasa den!!," adierazi digu Milagrosek Anaiak denda noiz ireki zen galdetzerakoan.

"Ondo joan zaigu, gustura egon gara eta niretzako ez da lana izan. Oso jende ona izan dugu bertan eta penaz gaude itxeko baina ezin gara gehiago egon. Urte asko egin ditugu," gaineratu du.

Lokala bilatu

"Ni lehenengoz Lasarte-Oria etorri nintzen hileta batera eta orduan hemen denda bat jarri behar genuela esan bazidaten... ezta pentsatu ere. Guk orduan ez genuen pentsatzen denda irekiko genuenik. Baina gauzak aldatu ziren eta hona etorri ginen," onartu du Milagrosek.

Baina etorri zirenean ez zen Kale Nagusiko lokala haiiek gogoko zutena.

"Lehenengo Banco Santanderreko lokala hartzeko asmoa genuen. Gu itsututa ginen lokal harekin. Baina ezagun batek frenteko lokalak begiratzeko esan zigun. Orduan gutxia zegoen egiteko, habeak ikusten ziren, gutzia itsusi zegoen. Baina gustatu zitzaigun eta zorrea izan genuen, oso ongi egon gara hemen," onartu du Milagrosek.

Eta orduan, Lasarte zenean, horrelako denda gutxi batzuk zeudela aipatu digu, "guk denda ireki genuenean Nogues zegoen eta Gallegoek gure ostean ireki zutela uste dut. Txikia zen Lasarte. Lehenengo urteetan gutxi batzuk ginen".

Hasiera

Gainera hasi zirenean egun



Kontxu, Floren Mendizabal eta Milagros bere arreba izan dira 44 urte hauetan dendan lanean.

duen arropa ez zutela azpimarratzen dute, "lehenengotan haurren jantziak eta etxeko arropa pixka bat izan genuen. Lau edo bost urte egin genuen horrela eta gero nagusien jantzia sartu genuen helduen arropa, denetik emakumeena, gazteena eta helduena, eta etxeko arropa gehiago. Bide horretatik

jarraitu dugu urte guzti hauetan".

"Eta guk nahiko konpleto jarri genuen. Herrirako nahikoa. Donostian denda gutxitan egongo ziren gurean bezainbesteko aukerarekin," gaineratu du Milagrosek.

"Oso desberdina zen. Orduan bi denda izan genituen bata hemen eta bestea Hernanin. Kantitate handiak erosten ziren eta marka onekoak beti, ez denda txiki baten modukoa. Hau egiteko, bi denda handi edo hiru, lau edo bost txiki batu behar ziren. Gu horrela moldatzen ginen," azaldu dute.

"Marka onenak hartu genituen. Orduan oso garrantzitsua zen markak izatea. Gaur ez da hain garrantzitsua. Gaur merke saltzen da, baina orduan beroki bat erosten zenean betiko izango zela pentsatzen genuen. Ondo josia, oihal ona... horretarako marka onak izan behar ziren," gogoratzen dute.

Birziklatzea

Eta egun gauza asko aldatu direla adierazi digute, "orain ez da horrela, denboraldi batetik bestera birziklatzen joan behar da. Lehenengotik hasi eta azkenera arte. Ezin



Mota desberdinetako gizonen, emakumeen eta gazteen jantziak izaten zituzten salgai Anaiak dendan.

Guk denda ireki genuenean Nogues zegoen eta Gallegoak bezala ezagutu duguna beranduago ireki zutela uste dugu. Txikia zen Lasarte eta denda gutxi batzuk ginen

Ondo igaro Eguberri jaietan !



ANAIAK

JANTZI-DENDA

Eskerrik asko 44 urtetan, guran jarritako konfidantzagatik, ... MILA ESKER

Kale Nagusla 25 • LASARTE-ORIA • Tel.: 943 362386

Denboraldi batetik bestera birziklatzen joan behar da. Ezin da geldirik egon, urtean eramaten dena jarri behar da salgai

Guk asko ikusi ditugu gure denboran itxi dutenak eta guk ez dugu arazorik izan urte hauetan aurrera egiteko. Lan asko egin dugu.

da geldirik egon, urtean eramaten dena jarri behar da salgai eta markak edo gauzak landu". Hori oso garrantzitsua da, "asko ibili, asko ikusi... Hori egin dugu eta ongi joan zaigu," onartu du Milagrosek.

"Lan asko egin dugu. Guretzako ordurik ez da egon. Orduak denak sartu ditugu ahal izan ditugun guztiak," aipatzen du Florenek. Era berean, lau hamarkada hauetan moda ere asko aldatu da, "guztiz, arropak ikusi eta gutxi gora behera hori izan behar duzu dendan".

Eta egun saltzeko beste moduak aurkitu behar direla ere adierazi dute, "Gehiago borrokatu behar da. Gaur denda eta interneta izan beharko genuke aurrera ateratzeko, biak nahasiak".

Jarraipenik ez

Honetaz gain, "urte batzuk gutxiago izango bagenu gus-tura jarraituko genuke. Ondo menderatzen dugu gaia. Baina ezin da. Urteek ez dute barkatzen," onartu du Milagrosek.

"Jarraitzeko jende berria hartu beharko genuke. Izan ere, azken urte hauetan gaixotasunak, etb. izan ditugu eta haiei irakatsi beharko litzaie-ke. Gogoakin honek aurrera egingo luke. Gazteagoak izango bagina, dudarik gabe jarraituko genuke," baieztatzen du Florenek.

Familian ere jarraipenik ez dutela diote, "gazte guztiek euren ikasketak dituzte, karre-rra egin eta lana dute eta ez dute dendarekin jarraitu nahi. Ostiraletik astelehenera jai, hemen horrelakorik ez dago. Goizean, gauean, beti zegoen zerbait egiteko dendan. Gus-tura egin behar da lan hau".

Lana eta lana

Izan ere, 44 urte hauetan arazo larririk ez dute izan, baina egoera ekonomiko des-berdinak bizi izan dituzte.

"Guk asko ikusi ditugu gure denboran itxi dutenak eta guk ez dugu arazorik izan urte hauetan aurrera egiteko," aipatu du Milagrosek.

"Hala ere, lan asko egin



Aniak dendako kideek herria aldatzen ikusi dute. Brigitarren plaza eraberritua, Bikutz dendaren itxea...

dugu eta konstantea. Esate baterako, 14 urtetatik orain arte ez naiz sekula gaixorik jarri. Beti lanean. Hori oso zaila da," onartu du Florenek.

Katarroak izan dituztela eta hala eta guztiz ere, lanean jaraitu dutela adierazten dute harrotasunez.

"Lan honetarako konstan-tzia behar da, oporrik ez da hartzen. Ordezkapen guztiak egin ditugu. Gustatuz gero arazorik ez," onartu du Flo-renek.

"Guk orain lan batzuk utzi ditugu, esate baterako, eskole-kin egiten ditugunak, ezin delako egin. Orain ez dago atzera egiterik," aditzera eman du gainera.

"Lana ez dago erraza

baina pixka bat prestatua bal-din bazaude eta lana eginez gero, aurrera ateratzen da. Dirua behar da horrelako negozio bat hasteko eta ezer ez baduzu ez dago zer eginik. Guk hau erosi genuen. Zortea izan genuen. Lokala erosi eta denda bete ahal izan genuen, hori hasiera baterako asko da egun," aipatu du Milagrosek.

Eta biek argi dute familia-ren laguntzarik gabe hau ez litzatekeela berdina izango, "familiak ere lagundu behar du. Prest egon behar da esku bat botatzeko, oso garrantzi-tsu da. Lagundu eta batu behar dira".

Eta horrela lanarekin eta konstantziarekin "denda man-tendu eta etxean bizimodu normala izan ahal izan dugu".

Kontxu langilea

Hau guztiaz gain, ezin dute Kontxu dendako langilea aipatu gabe utzi.

Milagros azaldu legez, "Oso anekdota polita da. Hau ireki behar genuenean, ongi prestatutako neska bat behar genuela esan genion gure lehengusinari, Milagros Mar-zanari eta hark esan zigun hoberena Kontxu Uzkudun modistarengana joatea zela."

Kontxu Uzkudun modista-rengana jo "eta orduan neska-rik ez zuela esan zigun, baina familia batean hiru edo lau alaba zituztela eta bertara hur-

biltzeko aipatu zigun". Fami-liaren etxera joan zirela aipa-tzen du Milagrosek eta "hantxe zebilen bera jertseak egiten haren amarekin. Gazte-xoa iruditzen zitzaigun, baina patxarakoa".

"15 urte zituen. Baina ikusi genuen etxe onekoa zela eta bera hartzea erabaki genuen. Urte guzti hauetan egon da gurekin lanean, beste neska batzuk ere izan ditugu, baina bera izan da mantendu dena" adierazi du Florenek.

"Ireki berarekin egin genuen eta baita itxi ere," esan digu Milagrosek.

Lasarte-Oria

Herria aldatzen ikusi eta herri-tarrekin harreman estua izan dute Mendizabal anai-arrebak. "Buelta handia eman du Lasartek eta leku ona da orain," aipatu du Florenek.

"Zorrik lehen hamarretik zortzirena apuntatuta erama-ten genuen eta gehienek ordaintzen zuten. Beti dago ganorabakoren bat, baina bat da, orokorrean jende zintzoa izan dugu dio Milagrosek.

Gainontzean "jende ona dago Lasarten. Orain dendan sartzen direnean, "nora joan-gara orain" galdetzen dute, "ohituak gaude hona etor-tzen". Hutsunea utziko dugu eta guri ere pena ematen digu. Baina ez dago atzera buelta-rik, larunbata 22 azken eguna.



Aniak dendako erakusleihoak beti izan dira zainduak eta ikusgarriak. Garaian garaiko dekorazioa izaten zuten.

JATEN DUGUNA GARA!

KALITATEA PREZIO JUSTUAN



Leire
Arrandegia

2013 zoriontsya opa dizuegu! Urteberri on!

skerrick asko guregan jarritako konfidantzagatik



ORDUTEGIA
Asteartetik larunbatera 08:00etatik 14:00etara
Astearte eta ostiraletan arratsaldez ere 17:00etatik 19:30era



Nagusia 35 • Lasarte-Oria • Tel.:943 371946
Mikeletes Pasealekua 8 beheka 6 • (Antiguo) Donosti • Tel.:943 217698

Endika Gartzia Duatloi, triatloi, mendi lasterkaria

"Helburua beti disfrutatzea da ez irabaztea"

Duatloi, triatloi eta mendi lasterketetan emaitza bikainak izan ditu aurten ere

Herriko kirolariak duatloi eta triatloietan hasi zen gogor lehiatzen, orain mendi lasterketetan ere aritzen da eta beti lehen postuetatik oso hurbil. 2012.urtea ona izan da berarentzat eta besteak beste, Euskararen Maratoian Buruntzako erronkan bigarrenen parte hartuta, errekor berria ezarri zuen 38:48ko denbora eginda.

Maider AZURMENDI

Tenerifetik iritsi berritan hitz egin dugu Endika Gartziarekin, 33 urteko herritarak emaitza onak lortu ditu urte osoan zehar buruntzako duatloi, triatloi eta mendi lasterketetan. Buruntzako errekor berria ezarri zuen Euskararen Maratoian Iraitz Arrubarrena eta Jonathan Florensen aurka lehiatzen. Dagoeneko burua 2013ko egutegian dauka jarrita, besteak beste Zegama-Aizkorri lehenengoz egitea gustatuko litzaioke.

Buruntzako erronkan errekorra egin zuen Euskararen Maratoian. Espero al zenuen?
Lehorean entrenatuta banekin hobetuko nuela aurreko Maratoian egindako denbora eta errekorra bera haustea ere posible ikusten nuen. Egunean bertan ordea, eguraldia ikusita zalantza neukan eta batez ere lesioirik ez egitea izan nuen buruan.

Erojuia begiratu gabe joan nintzen bide osoan, iristean zen helburu bakarra. Iritsi eta elizako erroja ikustean konfiantza nintzen denbora ona egin nuela, azkenean 38:48.

Esan behar da Iraitz eta Jonathan arierio oso onak izan zirela. Oraindik gaitzak dira, lau urte barru berriro egitekotan ikusiko genuke... Iraitzen ibilbidea pixkat ezagutzen dut eta badakit oso maila onean aritzen dela korrika, Jonathan gutxiago ezagutzen nuen baina primeran ibiltzen da eta hala erakutsi zuen.

2012. urtea nolako izan da?
Pozik nago egindakoarekin. Mendi lasterketak eta duatloiak tarteak ditut eta mendiko lasterketetan oraindik zerbaite falta zaidala nabaritzen dut, jaisten denbora galitzen dut eta hori zuzentzea da erorka datorren urterako.

Duatloiarri dagokionez, asfaltoan entrenatzeko denbora gutxiago izan dut aurten

eta hori nabaritu dut emaitzetan.

Euskadiko duatloi motzeko txapelaldun izendatu zintuzten Durangon...

Bai bueno, hirugarrena izan nintzen baina aurreko biak deskalifikatu zituzten ibilbidea ez jarraitzeagatik.

Azkenen bi hauek erabakiaren kontra egin zuten ibilbideko zati hori behar bezala seinalizatuta ez zegoela argudiatu eta epaileek azkenean arazoia eman zieten beraz ni hirugarren.

Hala ere lehen postuan egon zara....

Bai, esku pilotan lortutako emaitzekin. Azkoitiko duatloian bigarren izan nintzen, Erilaizteko igoeran hirugarren, Izarritzen laugarren, orain gutxi Tenerifeko K42 Anaga maratoian bigarren egin dut...

Bidarraiko mendi maratoia irabazteagatik joan naiz Tenerifera adibidez. Printzipioz saria Argentinara joateko zen, han mendi maratoi bat egiteko baina lanagatik ezin nuen eta Tenerife eskaini zidaten.

Tenerifekoa oso polita izan da, 44 kilometro arrotelatik, basoetan barrena... denetik zeukan zirkuitua. Oso jendea on zegoen eta sorpresa bigarren egitea izan da.

Oso ezberdinak al dira mendi lasterketak eta duatloiak?

Oso ezberdinak bai, mendian gehiago ezin duzunean oinez zoaz, polikiago, asfaltoan berriz ezin da hori egin. Asfaltoan leher eginda joanda ere, erritmoa mantendu behar duzu.

Mendian ibiltzea politagoa da, paisaia aldatzen da, ez da kotxeekin kontuz ibili behar...

Nola prestatzen dituzu lasterketak?

Adibidez Tenerifekoa udako oportunitate buekian hasi nintzen, hiru hilabetetan prestatu dit. Saiatzen naiz asteazken zehar egunero asfaltoan las-



Euskararen Maratoian helmugan Flores eta zortzikoteko Agus Mujikarekin, kronometroari begira Alex Teuena.

terka egiten eta asteburuetan mendian lau orduko saioak egiten ditut.

Dieta zaintzen dut, jarraitu izan ditut neurria egindakoak eta horietan oinarritzen dut egun nire elikadura.

Kirol zaletasuna betidanik izan al duzu?

Bai, esku pilotan aritzen nintzen txikitin, gero birrindularitza eta horik duatloi eta triatloietara pasa nintzen. Azkenak mendi lasterketak iritsi dira.

Lehiatzen eta kirol bat behar bezala prestatzen, txirrindularitza izan zen lehenengoa, 20 urterekin afizionatu bezala hasi nintzen lasterketetan, nahiko berandua.

Urtean zenbat lasterketa egiten dituzu?

Normalean urte hasieran mendiko lasterketan eta duatloi eta triatloien egutegia hartzen dut eta hauek txandakatuz nire egutegia osatzen dut. Azkenean lasterketa batzuk ateratzen dira.

Denboraldia nolabait esa-

teko, otsailen hasi eta uztailan amaitzen da, hilabete fulteenak maizta, ekaina, uztaila izaten dira niretzat baina ia astebururo egiten ditut lasterketak. Udazkenean beste erritmo bat da, gogoaren arabera egiten dut.

Lasterketa gehien egin duzun urtea...

Egia esan asko dira egindakoak eta ez dakit zehazki zenbat egin ditudan. Aurten adibidez ia astebururo izan ditut lasterketak, kopurua ez dakit.

Markak jartzen al dizkiokiz zure buruari?

Helburua disfrutatzea da beti ez irabaztea. Hori lortzeko entrenamendu ona egitea da oinarritzkoa. Forma onean egoteak ahalbidetzen du lasterketetan maila ona erakustea.

Maila honetan aritzeko asko entrenatzen duzu. Nola ikusten dute etsekoek?

Ondo darमतelata uste dut. Tenerifera adibidez andrea

eta umea etorri dira nirekin. Eguraldiaren arabera baina normalean lasterketa askotara joaten dira ni ikustera.

Haurra oraindik ez da asko konturaten baina galza motzetan ikusi eta badaki aita korrika egitera doala.

Hurrengo helburua?

Mallorca mendi maratoi bat egingo dut martxoan hasieran eta Zegama-Aizkorri ere lehenengoz egitea gustatuko litzaidake. Leitzako ultratrail bat egin nahi dut ere.

Comendoren bat orain has-tendirenzat?

Baldintza fisiko onak izatea garrantzitsua da eta entrenatzeile bat edukitzea ere bai.

Oso garrantzitsua da behintzat hasieran, profesional baten esateko nola entrenatu behar duzun eta helburuen arabera pautak batzuk finkatzea.

Oso argi izan behar da zer egin nahi den eta horren arabera entrenatu, dieta jarraitu... lehen postuetan egoteko garrantzitsua iruditzen zait jarraipen hau. Oso zaila da laguntzarik gabe entrenamendu egokia egitea.

Bestelako kasu bakan batzuk daude, David Martin bera fenomeno bat da, bakkari entrenatzen du eta oso diziplinatua eta konstantea da. Baina orokorrean laguntza edo eskema bat beharrezkoa da.

David Martin Korrikalaria

"Desagertu nahi dut"

Urte asko dira lasterketa ezberdinetako lehen postuan eta Martinek datorren urterako zapatilak zintzilikatuko dituela dio

Ibilbide polita egin du lasterketen munduan eta bere herriko krosa laugarren aldiz irabaztea gogoan izango duen garaipen horietako bat da David Martin herriararentzat. Behobian lortutako marka bezalade, errepika ezina dela harrotasunez esaten du. Bere ohiko umiltasunarekin 2012. urtea agurraren urte izan daitekeela dio.

Maider AZURMENDI

David Martinek irabazi du aurten ere herriko krosa, bere laugarren garaipena izan da eta dirudie-nez azkena. Oholtza askotan sariak jaso ondoren bere korrikalari ibilbideari agur esatekotan da. Kirola egiten jarraituko omen du bigarren maila batean. Ohiko umiltasunez eta Aitor semea besoe-tan erantzun du galderak.

Oso emaitza onak eta Behobian 7. postua, harro egoteko moduko marka ezta?

Behobiako marka, 1:03:55ko denbora, errepika ezina eta marka izugarria da. Esnatu orduko nabaritu nuen oso ondo negola, eguraldi apro-posa zegoen korrika egiteko eta ondo ibiliko nintzela goi-zean goizetik nabaritu nuen... oso ondo gustura egin nuen korrika eta lortutako emaitza bikaina izan zen.

Lasarte-Oria Bai! Krosa irabazi duzu laugarren aldiz aurten. Espero al zenuen?

Egia esan ez. Ultzia neukan eta uztaila aldean hasi nintzen behar bezala entrenatzen. Sergio, bigarren sartu zena, espero nuen berak irabaztea baina azkenean ni aurreratut nintzen.

Azken urte honetan entrenamenduen erritmoa jaitsi omen duzu. Ez da azeria konfiazteko estrategia bat izango?

Oso urte arraroa izan da. Niretzako oso zaila da motibatzea lasterketarik egin gabe orduan maizta jate astean lau, bost aldiz joaten nintzen korrika egitera baina intentsitate oso gutxiarekin, 12-15 km egiten hasi nintzen erritmo oso lasaian, hori zen nire asmoa ere.

Ekaina eta uztailaren bi entrenamendu oso onak egin nituen eta orduan ondo sentitu nintzen lasterketetan parte hartzeko, ea noraino iritsi nai-



Lasarte-Oria Bai! Krosa laugarren aldiz irabazi du Martinek.

asko gorputza ondo eta forma hobean mantentzeko ona zela lasterketa gehiagotan parte hartzea urtean zehar.

Animatu nintzen eta Ildia-zabalgo Krosa izan zen lehen-aurreko denbora, emaitza onak lortuta, animatzen joan nintzen eta parte hartzea urtean lehen esan bezala. Hala ere ez ditut asko egin...

Urte batean zenbat lasterketan parte hartu duzu?

Ez pentsa hainbeste egin dut-danik, azkenean emaitza onak beti mantendu ahal izateko neurria mantendu behar da. 2007 eta 2008a izan ziren urte potoloeneak eta bakoi-tzean hamar kros inguru egin nituen besterik ez, ez da asko. Aurten lau egin ditut Zumaiakoa ere egin nuen.

Dieta edo bestelako zaintza bereziki jarraitzen al duzu?

Ez naiz inoiz gauza horietan

dagoenean behintzat beti josten dut. Beste batzuk ere izango ditut baina denek dauzkagu halako ohiturak beste esparri batzuetan bada ere ezta?

Datorren urteko egitaraua pentsatu al duzu?

Ez, datorren urtean desagertu nahi dut. Kirola egiten jarraituko dut noski baina dagoeneko lasterketak uztea egokitzen da.

Nitaz jendea ahaztuko da eta lekukoa beste herritar batek hartuko du zier. Datorren urtean lasterketetan ibiltzeko asmoak ez ditut.

Bi seme-alaba txiki dituzu. Haien nola bizi dute aita ohialtzeko kusteak?

Aitor oraindik txikia da eta ez da konturatzin. Izaro bai konturatzin da eta berarentzat aitaxo beti da irabazlea, ueste du beti irabaziko ditxiala... polita da. Oraindik txikiak dira ulertzeko lasterketa bat irabaztea zer den, lehia-kortasunaren kontzeptua oraindik ez dute ulertzen.

Zer esango zenieke korrika eta lasterketetan parte hartzen hasi diren gazteei? Ba al dago sekreturik?

Guztiaz bezala, badago berez korrika egiteko klase handia daukan jendea. Berezko klase hau ez daukagunon kasuan, lana eta konstante izatea da sekretu bakarra.

Emaitza onen atzean lan handia besterik ez dago eta hori lasterketak irabazi nahi dituztenentzat.

Korrika egitea bestela oso kirol ona da eta maiztasuna mantentzea nahikoa da gustora lasterketetan parte hartzea soilik helburu dutentzat. Ez dago beste sekreturik.

Eguberri jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

I. URRUZOLA

ARROTEGIA

- Era guztietako arotz-lanak.
- Armairu barrenduak.
- Etxe barruko konponketak.
- Parket flotantea.

Oria etorbidea 4, behe (Errekatxo jatetxearen ondoan)
Tel.: 943 371200 / 610 413131
LASARTE-ORIA

Javi Fraile eta Manica Garraza Aspanogi elkarteko kideak

Minbiziari aurpegi onez aurre egiten

Azaroaren 4ean, urte bete egin du Unai Fraileri minbizia zuela esan ziotela

Aurten EITBko elkartasun kanpainaren gaia, haur minbizia izan da. ASPANOVA elkarteak eraman du batutako dirua, 676.743€ eta minbiziaren ikerketa bultzatzeko erabiliko da dirua. Gure lurraldean ASPANOVI izena du elkarteak eta honetako kideak dira Javi Fraile, Manica Garraza eta Unai Fraile. Haien esperientzia azaldu nahi izan duete egoera berean dauden herritarrek laguntzeko.

Nere EIZAGIRRE

2011. urteko azaroaren 4ean, Manica Garraza eta Javi Frailek jakin zuten bere 7 urteko semeak, Unai, minbizia zuela. Urte bete igaro da eta asko borrokatu ostean, Unai Landaberri ikastolan dago ikasten eta Ostadareko futbol eskolan hasteko irrikitan da.

Monica eta Javi azaldu digutenez, "hamar eguneko gaua izan zen. Urriak 24ean Sara arrebak bi urte egin zituen eta bazkariaren ostean, gaizki jarri zen. Horretaz gain, hurrengo asteetan nekatu zegoen eta sukarra gora eta behera zebilkien. Goserik ere ez zuen. Birusa edo hazten ari zela uste genuen, baina sukarrak eta nekea mantentzen ziren eta medikura joan ginen."

"Orain dela gutxi pediatriarekin hitz egin dut, bizkarminua garbia dagoela esateko eta berak lehen ikusketan ezer ikusten ez ziola aipatu zidan. Hau da, Unaien kasuan ez zegoela ohiko sintomarik: pankrea ez zegoen handitua, ez gibela... baina gaixo aurpegia zuela eta horregatik analitika egitea

erabaki zuela", azaltzen du Monica.

Analitika egin eta ospitale-ara zitu bizian igotzeko esan zieten. "Larrialdikoa zela eta ez ziguten ezer gehiagorik esan," aipatu du.

Monicak adierazi digunez, "kasuak daude, non pediatriak familiarik diagnostikoa ematen dion, baina ez da ohikoa. Ez baita egokia osasun zentroetan horrelako berriak ematea. Gainera, proba berretsi behar dute."

Honela, Unai analitika berria egin zioten ospitalean, "zerbait zegoenaren susmoa baguenen eta azkenean, jakin genuen, Unai minbizia zuela."

Berria jaso

Zehazki Unaiak leuzemia limfoblastika autua zuen, "haurrek izan ohi dutena. Arruntena da, baina medikuen arabera, aldaera exotiko baten bat zuen."

"Hiru aste behar dituzte zer den ohartzeko. Leuzemia dela esaten dizute, baina aldaera desberdinak daude eta milaka izen desberdin izan ditzakete. Horren arabera, protokolo desberdinak daude," aipatu du Javi.

Horregatik, zuzenean Interneten ez begiratzeko gomendioa ematen dute medikuek. "Momentu horretan gure burmuina zulo bat zela esan ziguten, informazio gutzia xurgatuko zuela eta ez genuela hainbeste informazio behar," adierazi du Monicak.

Era berean, Unaiak hasieratik jakin nahi izan zuen gai-xotasunaren berri. "Hasieratik psikologikoki hamaika urteko gaztetxo bat bezala tratatu zuten informazioa ematerakoan. Medikuek galdetzen badute informazioa eman ohi diete haurrei eta Unai galdetzen zuen."

Gainera liburu baten laguntza ere izan zutela aipatu du Javi, "liburu batek asko lagundu zigun 'La ardilla Colasa te cuenta lo que pasa' eta honekin ulertu zituen semeak gauza asko."

Isolamendua

Izan ere, ospitalean sartu eta 38 eguneko isolatze fasea izan zutela azaldu digute.

"Ostirala arratsaldean jakin genuen. Onkologoak ez zuden, urgentziakoa zegoen eta bertan geratzeko esan ziguten. Afaria genuen eta hurrengo egunean bueltatuko ginela esan genien. Baina segituan medikazioarekin hasi behar zela esan ziguten. Unai gordailua jarri eta isolamendua hasi zen," aipatu du.

Tarte horretan, hiru pertsona ziren Unairekin egoten zirenak, Monica, Javi eta "nire lagun bat, Unairen osabatza jotzen duguna, Kepa. Haurra gustura egotea nahi

Monica Garraza, Unai Fraile eta Javi Frailek haien esperientzia jakitera eman nahi izan dute Lasarte-Orian egoera berean dauden edo egon daitezkeen familiei laguntzeko asmoz.

genuen, egoera ongi eramaneko zuena. Izan ere, egunak luzeak egin dira."

Gainera, gutzia esterilizatu sartu behar dela aipatu digute, "isolamendu fasean ezin dira esterilizaturik gabe dauden gauzak sartu. Bideo-gorri baten bat, Nintendoa esate baterako sar daiteke, guri utzi ziguten."

"Eskularu eta esparatzairekin eskulanak egiten genituen, kotxe bat egin genuen behin," adierazi du Monicak.

Honetaz gain, ASPANOVIk haizegailurik gabeko ordenagailua uzten du eta telebista doainekoa jartzen du.

Tratamendua

Baina tratamendua jarraitu eta "38 egunen ostean, beste ziklo batean sartzen zara. 5 egun etxean, bost ospitalean... sei hilabetera arte," azaldu digute.

Gara honetan erizainei txantxak egiten zizkieten. Eta ezizena jarri zioten Unairi, "El melenas", hilea erori bantziziotan.

Eta Javi azaltzen duenez, "analitika egiteko esnatu behar gintuzten eta behin baino gehiagotan urarekin bustita izan zen hori."

Unairen gurasoek adierazi digunez, psikologikoki fase desberdinak pasa zituen

haurrak tristura, ospitaletik joan nahia... Eta kimioaren eraginez, zapoaren aldaketa ere izan zuela aipatu digute, "Unai ez du inoiz atuna eskabeteen jan baina hori eskatzen zuen."

Honetaz gain, epe honetan arazo larriena berriro ere barizela hartu zuela aipatu digute, "hori utzaila eta abuztuan izan zen. Kimioak informazio genetikoaren berritza azaldu ziguten medikuek."

Orain mantentze fasean dago Unai. "Orain medula garbia du eta mantentze prozesuan gaude eguneroko kimio pilula bat hartu behar du. Hilabetean behin ospitalera igot behar gara odola nola dagoen ikustera," adierazi digu Monicak.

Osatzeta

Egun mantentze fasean dago Unai. "Orain medula garbia du eta mantentze prozesuan gaude eguneroko kimio pilula bat hartu behar du. Hilabetean behin ospitalera igot behar gara odola nola dagoen ikustera," adierazi digu Monicak.

"Orain oso ongi dago. Ez du kortikoiderik hartzen, ez du maiz ospitalera joan behar, ez du

kimioa odolera zuzenean hartu behar. Hobeto dago," oratu du Javik.

Hala ere, barizelaren eta kimioaren ondorioz, "okulistarekin eta otorrinolarekin jarraipena egiten ari gara," oratu du.

Urte beteko bidea geratzen dela aipatu digute, "kimioak bukatzen berriro azterketa egingo diote."

Eta Javik aipatu legez, "Egoeri buelta eman behar du. Tratamendua itxaropena da, eguneroko gauza eta aurrera egin behar da borrokatuz."

Ikastola

Era honetara, hilabete hauetan zehar, normaltasuna nagusi izan dela adierazi digute.

Baina argi utzi nahi izan duete egoera honetan ezin dela bizitza normala egin.

"Orain ikastolan dago, baina iaz ezin zen joan eta etxera eta ospitalera irakasleak joaten ziren," adierazi digute.

Javik adierazi

Gainera, bitxikeria gisa, "kastolara urte betean ez da joan eta hori nabaritu du. Ez du esate baterako kontrolatuz azterketarako aldatzea ikusi eta lehenengo aldiari harrituta etorri zen etxera. "Mahaia banandu eta orain bakarrik egin behar ditugu," esan zigun," aipatu digu Monicak.

ASPANOVI

Honetaz gain, gaixotasunaren ibilbide zail honetan, ASPANOVI elkartearen laguntza eta lana azpimarratu nahi izan du, baita ospitaleko langileena ere. "Arreta handiz zaintzen zaituztete. Eta haurrak etxean ordu bat pasatzeko lehenesten dute," aipatu du Monicak.

ASPANOVIri dagokionez, elkarteak haiekin harremanetan jarri zela aipatu digute, "Elkartea zer den, gaixotasuna zer den, zein laguntza dauden, laguntza psikologikoa eta orientazioa ematen du... izan ere, gaixotasun

digunez, lehen Kaxkarroko ikastola zenean orain ospitaleko eta etxeko hezkuntza arretara eta arreta terapeutikoa eta hezkuntza-arreta ematen duen zentroa dago eta honen bitartez etxean ikasi zuen Unaiak.

"Laguntza hori eskatu genuen. Klaseak gaitzen dituzte, baina etxean ordu eta erdiz gai desberdinetan lanean daude. Gai tronkalak ematen zizkieten eta kurtsua gaitzitu zuten," aipatu du.

Egun Landaberri ikastolan dago LH4 ikasten. Erabaki hori ere zaila izan zela adierazi digute. "Onkologoak eta nik ez genuen eskolan hastea nahi. Azaroaren 8an kimio fasea bukatu zuten eta komegnaria da haurrak lasai egotea. Baina Psikologoak eta aitak haur honek bizitza normala behar zuela esaten zuten," aitortzen du Monicak.

"Nahiz eta lehen asteetan nahiko makal ibili, ederki moldatu da. Izan ere, medikuek azaldu bezala, Unairen ikastolara joatea maratoi bat egitea bezalakoak zen," azaldu du Javik.

Gainera, bitxikeria gisa, "kastolara urte betean ez da joan eta hori nabaritu du. Ez du esate baterako telebista-atera zere Aitor Eumukoa da edo Legorretako kasu bat ere badago," azpimarratu du.

Eta geroz eta haur minbizi kasu gehiago daudela ere diote, "guri eskaintako informazioaren arabera, Donostiako ospitalean urtean 15 haur ziren. Baina iaz kopuru hori izan zen, Unai hogeita hirugarrena izan zen eta uste dugu iaz 26 edo 27 izan zirela. Aurten ere estatistikak gora egin dute," azaldu du Monicak.

Javi eta Monicak dituzten ezin da datu zehatza jakin, "ospitalean ez dituzte datuak eskaintzen. Dakiguna amen arteko harremanarengatik da. Batzuk what's up taldea sortu dugu eta gure artean hitz egiten dugu."

"Minbizi pertsona adinduekin lotzen dugu, baina orain ez da horrela. Ez dakigu, zer den, mikrohinak edo... aipatu du Javik.

Bizitza aldatzen dio familia osoari. Ospitalean beti norbait egon behar da haurraren

honek bizitza aldatzen dizu. Haurrek beti izan behar dute norbait haien ondoan."

Monicaren kasuan, "nik uste nuen 2012ko urtarrilera-ko lanean egongo nintzela eta orain urtarrilaren 7an hasiko naiz. Laguntza bereziki esker egin izan dugu hori. Horrelako kasuetarako ia onartutako laguntza dira."

Eta zera gaineratu du, "asko errazten dute zure jarduna, ez medikuntza arloan, horretarako mediku eta erizainak daude. Giza harremanetan oso lan ederra egiten dute elkarrekin."

Orain elkarteak gurasoentzat gela bat atondu duela ere aipatu digute, "dutxa batzuk daude, hozgailu bat eta mikrohin-labe bat. Gurasoek bere lekutxoak dute arropa uzteko haurrak ospitalean dauden bitartean."

Izan ere, "gu oso zorteko gara, ospitaletik Lasarte-Oriara bost hamar minutu ditugu. Baina esate baterako telebista-atera zere Aitor Eumukoa da edo Legorretako kasu bat ere badago," azpimarratu du.

Eta geroz eta haur minbizi kasu gehiago daudela ere diote, "guri eskaintako informazioaren arabera, Donostiako ospitalean urtean 15 haur ziren. Baina iaz kopuru hori izan zen, Unai hogeita hirugarrena izan zen eta uste dugu iaz 26 edo 27 izan zirela. Aurten ere estatistikak gora egin dute," azaldu du Monicak.

ASPANOVI

Honetaz gain, gaixotasunaren ibilbide zail honetan, ASPANOVI elkartearen laguntza eta lana azpimarratu nahi izan du, baita ospitaleko langileena ere. "Arreta handiz zaintzen zaituztete. Eta haurrak etxean ordu bat pasatzeko lehenesten dute," aipatu du Monicak.

ASPANOVIri dagokionez, elkarteak haiekin harremanetan jarri zela aipatu digute, "Elkartea zer den, gaixotasuna zer den, zein laguntza dauden, laguntza psikologikoa eta orientazioa ematen du... izan ere, gaixotasun

Bisitak eta telemaratoia

Hori ikertzeko laguntza behar dela eta, EITBK hilabete hasieratik dirua bildu eta abenduaren 12an telemaratoia egin zuten ASPANOVI elkarterentzat.

Monica Bilbon izan zen, "jende ezagun asko izan zen bertan telefonoak hartzen eta laguntzen. Gipuzkoako elkarte-ko Nekane eta guraso ugari izan ginen bertan, baita Bizkaiko elkarteak ere."

"Lortutakoa dirua errekorra da. Jendeak esan zigunez, inoiz ez da hainbeste idi izan eta diru kopururik ere kasu batzuetan handiak izan dira. Nahiz eta krisi egoeran egon, jendeak asko lagundu du" azpimarratzen du Monicak.

Baina honetaz gain, elkarteak beste ikentza batzuk ere antolatzen ditu, "Gabonetako kontzertua egin zuten. Zaru-zen Mobil bike ekimena egin zuten Pirritx eta Porrotzekin, loteria saldu dugun... Itreerak antolatzen dituzte haur, zein gurasoentzat."

Eta elkartetik kanpo ere, ospitalean hainbat bisita jaso zuten dituztela aipatzen dute gurasoek. "Porrotx, Lagun Aro eta Erealeko jokalariek, sultizaleak, bolondresak... jendea asko etortzen da. Haurrak dira."

Eskertza

Urte honetan hainbat ezagun eta herritarren laguntza izan duete eta oso eskertuak daude horregatik. "Laguntza handia izan dira guretzat, herritarrek, lagunak eta Amaia Cuesta nire lankidea," dio Javik.

Eta gainera, hasieran "herriko pertsona batek, bere semeak gaixotasuna gainditua duena, bere laguntza eskaini zigun. Bere esperientzia azaldu zigun guri eta familiarri eta laguntza-koia izan zen oso. Lehen egun horietan laino batean zaude eta oso baliogarria izan zitzaigun."

Diagnostikoa eman eta Interneten ez begiratzeko gomendioa ematen dute medikuek. Ez da hainbeste informazio behar

Pintxotan aukera zabala

TABERNA Buenetxea KAFETEGIA



Eguberri eta Urteberri egunetan eguerdiko 12:00etatik aurrera IREKITA!

GABON ETA URTEZAHAR GAUETAN GAU OSOA IREKITA!

Eguberri eta urteberri on!

Pablo Mutiozabal 2 • Tel.: 943 369508 • LASARTE-ORIA

Eguberri on!

Bideo Lagunak TIEN 21

Etxekotresna elektrikoetan adituak



Likidazioa Led SAMSUNG 339€

10€ beharpena egingo dizugu zure hurrengo erosketan 32"-ko Samsung hau erosi eta Facebook-ean Bideo Lagunak-en lagun egiten bazara

Eskaintza gehiago Facebook-ean, Jarrai gaitzazu!

Me gusta

Donostia etorbidea 2 • Lasarte-Oria | Tel: 943 37 31 34 | www.bideolagunak.com

Pausoka elkartearen egutegi solidarioa

Pirritx, Porrotx, Marimotots eta Takolo pailazoen parte hartzea izan du proiektuak

Pausoka elkarteak orain hilabete batzuk plastikozko tapoiak biltzeko kanpaina martxan jarri zuen. Gure herrian hainbat izan dira laguntza emateko prest tapoiak jaso dituzten denda eta tabernak eta orokorrean "lasarteoriatar guztiei gure nahia betetzen laguntza emateagatik" eskerrak eman nahi izan dute. Egutegi solidario bat kaleratu berri dute diru bilketa-ekin jarraitu ahal izateko. Honetan herriko pailazoak garun-paralisia duten elkarteak haurrekin ageri dira.



Egutegi elkarteak haurrekin agertzen dira Pirritx, Porrotx, Marimotots eta Takolo pailazoak.

Tapoi asko bildu dira gurean, baina zergatik plastikozko tapoiak? Bizkaiko enpresa batek tonako 300 euro ordaintzen dituelako. Ahalik eta diru gehien lortzeko asmotan egin du bilketa Pausoka elkarteak garun-paralisia duten euren haurrei beharrezkoa duten tratamendua eman ahal izateko.

Lurdes Palaciosek azaldu moduan, lan handia izan da elkarteak kideentzat bilketa hau egitea eta momentuz bukatutzat eman dute. Izan ere, erosleak geroz eta gutxiago ordaindu nahi zuen plastikozkoagatik.

Behar bereziak

Pausoka elkarteak behar bereziak dituzten haurren guraso talde batek sortu zuen marotoan. Hauen helburua Zentro terapeutiko bat garatzea izan da bertan haurrek behar dituzten tratamenduak jaso ahal izateko. Haur hauek garun-paralisia dute edota epilepsia patologia oso larriak. Gaitz hauek atzera-

pen psikomotore garrantzitsua eragiten die eta hau asko hobetu daiteke fisioterapia saio egoki eta sarriekin.

Lokala dagoeneko eskuratu dute Hernaniko udalak utzita eta bertan ari dira tratamenduak egiten baina oraindik diru laguntza behar dute, lokala egoki moldatu eta behar diren baliabide guztiekin osatu ahal izateko 30.000 euro inguru behar direla aurreikusitu dute gurasoek.

"Erakunde ezberdinetara jo dugu baina nolabait laguntza eman ahal izan digun bakarra Hernaniko udala izan da lokala utzita. Orokorrean dirurik ez dagoela erantzun digute". Momentuz bi eta hamar urte arteko hamabost haur dira tratamendua jasotzen dutenak "baina helburua ahalik eta ume gehien lagun-

zea da. Adibidez hastekoa da gurekin tratamenduan Lasarte-Oriako ume bat".

Zentroak behar berezi hauek dituztenen haur eta familientzat erreferente izan nahi du "familien arteko aholkularitza eta laguntza ere aurkituko dute gurean".

Egutegia eskuragarri

Dirua biltzeko asmotan ere egutegi solidario bat egin dute eta salgai dago zazpi eurotan. Dagoeneko bigarren tirada bat egin behar izan dute "2.000 ale atera genituen eta ia bukatu egin dira, jendeak oso erantzun ona izan du eta eskertzen dugu harrera bero hau".

Herrian Labe Goxo okindegian, Muñoz belar dendan, Muntteri-AEK euskaltegian, Maite Erkizia ile-apaindegian

eta Uruzola mertzerian erosu daiteke egutegia.

Honatan Pirritx, Porrotx, Marimotots eta Takolo herriko pailazoak agertzen dira elkarteak haurrekin batera "argazki saioa oso polita izan zen umeentzat".

Kamisetak, loteria, Donostian Santo Tomaseko postua izango dute gaur, dena aipatutako helburu ekonomikoa lortzeko grinak bultzatuta.

www.pausokaelkatea.org web gunean elkartearen inguruko informazioa aurki daiteke eta bertan aukera ematen da euren proiektua diruz laguntzeko. Batetik edozein ekarpen egiteko aukera ematen da eta bestetik, elkarteak bazkide egin daiteke hilabetean bost euro ordainduta.

Haurrek tratamendu egoiarekin aurrera pauso garran-

tzitsuak ematen dituztela gogoratzen du Maiteder elkarteak lehendakariak "biltzeko gai dira" eta hurrengo pausoa fisioterapia eta terapia okupazionalaz gain, logopeda baten laguntza izango da. "Orain haurrak dira baina adinean aurrera egin ahal, tratamenduak egokitu beharko ditugula badakigu".

Maitederrek eskertzen du orain arte herritarrek emandako laguntza eta azpimarratzen du edozeini gerta dakiokela garun-paralisia duen seme-alaba bat izatea, "guri gertatu bezala gure haurrentzat beharrezkoak diren tratamendu guztiak eskura eduki nahi ditugu eta horretarako ari gara lanean, guraso guztien desioa da euren umeak aurrera egingen ikustea".



**Gas-instalazioak,
berokuntza eta iturgintza**

Ordutegia

**9:00 - 13:00
16:00 - 20:00**

SAMPICAS

**Kale Nagusia 69, behea • Tel: 943 360165
LASARTE-ORIA**

Izan Eguberri zoriontsuak !



Benedika mendiko ipuina



Bazen behin Benedika izena zuen mendi bat.
Benedika berak bakarririk zekien mendia zela.
Tontorrean lasai, lasaiegi behar bada, Ixabela
igela bizi zen.

Egun batean Benedika jendez betetzen hasi
zen, bi orduro (hiru agian) norbait tontorrera
iristen zen: emakume, neska, mutil eta gizon..
Hau estresa Benedikarentzat!

Ixabelak aldiz pozik hartu zuen festa.

Ordurarte txio txio,
kri kri, ijiiii
(zaldia) hizkuntzak
entzun zituen baina
egun horretan bere
belarrietara
iritsitako kantuek
guztiz liluratu
zuen. Zer ote?

Agus apoari
galdetu
zion.

Agus-ek erantzun:

-Galdetu Ilargi zaldiari..
(beno kroak kroak...)

Ilargi zaldiari galdetu eta honek erantzun:
-Galdetu sagarrondoari
(beno ijiiii)

Sagarrondoari galdetu eta honek erantzun.

-Ibairako bidea egin beharko duzu. Ibai
ertzean dago erantzuna (beno tras
tras..sagarrondoak egiten duen moduan)

Eta ibai ertzerara abiatu zen Ixabela, boing
boing..(saltoka).

Bidean Doraemon, Mari Kalanbre,
Madonna... topatu zituen baina horrek bost
axola orain. Axola zaiguna da, Berasategiko
tunela itxita aurkitu zuela. Ene!!!
(munizipalak ere...) Igela izanik ez zuen
inongo problemarik izan burdin hesia
zeharkatzeko.

Eta ibai ertza gero eta gertuago zuen.
Berrero ere doinu liluragarri hura entzuten
zuen urrunean. Ibai ertzean herri bat topatu
zuen, jendez beteta, jendea karpa baten
barruan ospakizunean eta non-nahi berak
entzundako hizkuntza goxo entzun
zitekeen....

-Bero bero euskara orain da gero...bero
bero maratonia egunero.....



Eguneko platera
Karta
Bokatak
Pintxoak
Razioak
.....
Gosariak
Etxeko postreak
Tostadak
.....

Eguberri on!

Pintore I behea
Tel.: 943 374504
20160 Lasarte-Oria



SUKALDEKO ORDUTEGIA :
eguerdiko eta ostiral eta larunbat gauean

TXINTXARRIren errezeta zaharrak

Txintxarri aldizkariak 1000. alea gainditu zuen otsailean. Urte hauetan guztietan atal ugari izan ditu horien artean, On egin!. Honetan herriko sukaldariak eta jatetxeek haien errezetak eskaintzen zituzten. Atal honetako eta San Pedro jaietako berezietan 1994. urtean gure aldizkarian argitaratutako errezetetako batzuk gogora ekarri nahi izan ditugu Gabonetako berezi honetan.

1994ko ekainaren 24an
Jon Gonzalez Araetako sukaldaria

Pasta itsaski eta mariskoekin

Lau laguntzako osagaiak:

- 350 gr. pasta
- 16 ganba, azalik gabe
- 16 almeja
- 8 otarraintxo, azalik gabe
- Porruak, azenarioak eta lekak, luzerari txikitutak
- Esne-gaina, litro laurden
- Basoerdi ardo txuri
- Gatza eta piperrats txuria

Nola egin:

Ura sutan jarri gatz eta olio sorta txiki batekin. Pasta ur irekintara bota eta "al dente" egosi arte eduku. Egositakoan ura kendu. Olio pittin bat eta itsaskiak lapikoan jarri eta berotzen hasi. Almejak irekitakoan, ardo txuria bota. Gerxoago, esne-gaina eta barazkiak gaineratu. Egiten utzi. Ondoren, gatz, piperratsa eta pasta erantsi. Minutu batez irakiten utzi ostean, perrexila gehitu.



Meroa Onddoekin

Lau laguntzako osagaiak:

- 4 mero solomoa, hezurrik gabe
- 4 patata txiki berriak
- 4 tipula txiki
- Piper berde bat
- Onddo handi bat
- Olio eta gazta

Oharra:

Zilarrezko papera oso ondo itxi eta labean sartu. 200 gradu-tara eduku, 5 edo 10 minutuz, papera hasi edo puztu arte. Hazitakoan atera eta paper eta guzti jarri plateraren.

Nola egin:

Tipulak, azenarioak eta piper berdea luzean txikitu mehe-mehe. Patatak zuritu, onddoa garbitu eta xerra mehe-mehetan moztu dena; bai patatak, bai onddoa.

Olio zurgintzako zilarrezko paperean barazkiak (tipula,...) jarri. Ondoren, barazkien gainean patata xerrak; pataten gainean meroa eta meroaren gainean onddo xerratuak. Gauza bakoitza jarri ahala, gatz bota.

Zilarrezko papera oso ondo itxi eta labean sartu. 200 gradu-tara eduku, 5 edo 10 minutuz, papera hasi edo puztu arte. Hazitakoan atera eta paper eta guzti jarri plateraren.



Herriko goxua

Osagaiak:

- Bizkotxoa
- Altzako esne-gaina
- Pastel krema
- Azukrea

Nola egin:

Karamelua egin azukrea urtzen eta kolore gorri samarra hartzen duenean, sutatik kendu. Ondoren laranja eta limoi ura erantsi. Dena nahasitakoan, sutan jarri eta loditzen utzi. Ondo loditutakoan hoztera atera.

Lurrezko lapikoa esne-gain pittin batekin estali behar da. Ondoren bizkotxo xerra bat jarri gainean. Bizkotxo gainean, berriz, pastel krema. Azkenik, usaidun karameluarekin igurtzi behar da.

aldika produktu bereziak

ahatekinak
ehizak eta hegaztiak
bakailao gezatua
ondoak
marinatuak
olagarroa

Eguberri on!

Industrialde 19-20 • Tel.: 943 377089 aldika@euskalnet.net



1994ko irailaren 8an
Maria Luisa Arsuaga Goiegi jatetxea

Txerri-hankak barazki saltsa gozoarekin

Osagaiak:

- 6 txerri-hanka
- ¼. Oliba-olio
- 2 tipula
- 3 piper berde
- 2 azenario
- 2 porru
- Perrexila
- ¼. bat koñaka
- ¼. Ardo txuria
- Arrautzak
- Irina

Nola egin:

Hanken bizarrak ondo erre. Hankak, porru bat, tipula bat, azenario bat, piper bat eta ardo zuri guztia egosten jarri ur askorekin, presiodun lapikoan, hiru ordu laurdenez. Egositakoan hankak atera, epeltzen utzi, baina bero samar daudela hezurak kendu. Arrautza eta irinarekin rebozatu eta aparte utzi.

Saltsa egiteko, ondo txikituta gainerako barazkiak gorritu eta koñakarekin flanbeatu. Egositako saldatik litro 1'erdi bota eta egiten utzi. Saltsa pasapureen pasa eta gatz bota. Azkenik, saltsa berotu hankak eta guzti eta irakin txiki bat eman.



1994ko irailaren 23an
Iñaki Urruzola Sukaldaria



Izokin eta porru pastela

Osagaiak:

- 6 txerri-hanka
- 8 arraultza
- 200 gr. Izokin
- 3 porru
- 1 l. Esne-gain
- Tomate frijitua, burduntzaila bat
- Gatza eta gurina

Nola egin:

Porruak luzean moztu. Bigundu arte egosi. Izokina xerra luzean ebaki. Arrautzak irabiatu. Ondoren esne-gaina eta tomatea bota. Ondo nahastu eta gatz gehitu.

Pastela ez eransteko molde errektangularrak gurin pixka batekin igurtzi ezertzen. Moldeera saltsa pixka bat bota eta izokin xerra batzuk jarri gainean. Ondoren saltsaz estali eta porruak jarri gainean. Jarraian, horrela kapak gaineratu moldea bete arte.

Moldea uretan jarri. Labea 180 gradutan dela, bertara sartu eta egiten utzi.

1994ko urriaren 7an
Eulogio de la Serna Intza elkarte

Itsasaingira garagardoarekin

Osagaiak:

- 8 itsasaingira puska
- 15 goilarakada olio
- Tipula bat
- Piperrats gorria, goilarakada bat
- Garagardo botilatxo erdia
- Baratzuri ale bat

Nola egin:

Lurrezko lapikora olio eta baratzeria bota eta sutan jarri. Baratzeria gorri samartzen denean sutatik kendu eta olio epeltzen utzi. Ondoren, txikitutako tipula bota behar da oliotara. Sutan jarri eta ongi bigundu arte eduku. Orduan piperratsa bota eta 3 minutuz edo, ongi nahastu dena.

Itsasaingira-puskak bota eta bueltak eman bi aldeetatik gorritu arte. Orduan, 4 minutuz edo eduku. Azkenik, garagardo eta perrexila bota eta beste 5 minutuz eduku sutan.



Eguberri jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

DENA BERTAN EGINA

turroiak
mazapanak
polboroiak
erregetako opila
bonboiak
...

Pastelak
Opilak
Pastak
Ogia
Bonboiak
...

Hipodromo etorbidea 3
Lasarte-Oria
Tel.: 943 366176
labegoxo@euskalnet.net

LABE-GOXO

Oparitu euskara!

Opariak egiteko momentuan gaude eta eskura izaten dugun produktu aukera zabalaren aurrean zer erosi aukeratzeari lan zaila izaten da askotan. Erosketa hauek errazteko parada eskaintzen du www.katalogoa.org web orrialdeak. Bertan euskarazko produktuen katalogo zabala jasotzen da guzti adinkara sailkatuta. Euskarazko musika, filmak, komikiak, jostailu eta jolasak daude aukeran. Etxeko guztientzat opariak topatzeko webgune lagungarria.



Bizi-bizi Argiaren mahai jokoa da nobedadeetako bat, herriko pailazozen azken diskarekin batera.

Jostailuak, liburuak, musika... zein da aukeran opari egokiena? Zaila da erantzuna topatzea baina euskaraz oparitzea badagoela kontutan izan beharrekoa da izan ere, egun euskaraz mota askotako produktuak ditugu eskura ez soilik liburu eta diskoak, baita mahai jolasak edota ordenagailurako jolas dibertigarriak beste askoren artean.

Euskarazko produktuen aukera zabal hau katalogo batean jasotzen da. Katalogoa bera, liburuxka formatuan elkarte denda ezberdinetan aurki daitezke, Euskal Herrian 240.000 ale zabaldu dira.

Bestela, sarean dago denentzat eskuragarri www.katalogoa.org web

gunean. Katalogo honek gainera produktu guztiak zein adinentzat egokiak diren zehazten du lagungarria izan daitezkeen informazioarekin.

Nafarroan sortuta
Duela 15urte, Nafarroako udal gutxi batzuek eman zioten hasiera Euskarazko produktua biltzen dituen Katalogoari. Urte guzti hauek, asko izan dira honetan parte hartu nahi izan duten erakundeak eta egun, 135 toki-entitate eta 200 udalitik gora osatzen dute. Katalogo biltzatzen duten udalerriek bat eginda, Euskal Herrian liburuaren XV. edizioa argitaratu da aurtengo azken nobedade guztiekin.

"Euskarazko produktuak erdararen itasoan nabarmendu behar dira, eta egon badagoen hori erdarazko produktuen itzelatik argitara ekarri" diote arduradunek.

Nobedadeak
Paperezko edizioan zein www.katalogoa.org web orrialdean eguneratuak agertzen dira nobedadeak bereziki markatuta. Gainera urtean zehar kaleratzen diren produktuen berri e-mailan jasotzeko aukera ere eskaintzen du guneak.

Berriak dira esaterako Pirritx, Porrotx eta Marimotoren "Zazpikoloroa" DVD-a

eta "Sentitu, Pentsatu, Ekin!" diska, "Basalagunak" DVD-Filma, "Uretxindorra" ipuina 5-9 urte arteko haurren atalean. Hamar eta hamalau urte artekoentzat adibidez, "Abbadia-aren sekretua" edota "Dorak ezetz dio" izenburuak aurki daitezke.

Jostailu eta jokoen atalean berriz, badira besteak beste, Printze Txikiaren memoria joko eta Ikastolen Elkarteak kaleratutako animaien alfabetoa eta lehenengo ordenagailua.

Aipatutakoak bakan batzuk dira izan ere, hainbeste produkturen artean erraza da adin egokiarentzat oparia topatzea

gain, haur eta gurasoen gustukoak diren gaiak aurkitzea.

Online euskaraz
Internet-en doan umeentzako joko asko daude, eta euskarazkoak ere badaudela azpimarratu nahi dute katalogoko arduradunek. Guzti honen informazioa eta dagokion web orrialdea www.katalogoa.org helbidean zehazturik eta zerrendatuta aurkitzen da. "Interneten euskaraz eskaintza ere badela gurasoek jakitea garrantzitsua delako".

Web gunea iruzkin atalarekin osatzen da erabiltzaileentzat beste tresna lagungarri gisa. Bizi euskaraz, jolatu euskaraz!

SANCHO TABERNA

Eguberri zoriontsuak OPA DIZUEGU!

**HITZARTUTAKO
ETA
TALDEENTZAKO
MENUAK**

**OGITARTEKOAK
PINTXOAK
PLATER KONBINATUAK
EGUNEKO MENUA**

**KAXUELA,
PINTXO ETA
MORUNOETAN
ESPEZIALIZATUA**

Oriamendi enparantza 1 behea • Lasarte-Oria • Tel.: 943 372075

- Luxuzko autokarrak.
- 22, 28 eta 31 plazako mikrobusak.
- 56 plazako autobusak.
- Autobus literadunak.

URPA

AUTOBUSAK

Eguberri on!

Ubilluts auzoa, 55. poligonoa 9-4 • 20140 ANDOAIN
Tel.: 943 305050 • Faxa: 943 305060
e-maila: info@autocaresurpa.com
web orria: www.autocaresurpa.com

Foto depilazioa argi pulsatuarekin

**Prezio berriak fotodepilazioan
ETORRI eta GALDETU**

MAITE

- Era ezberdinetako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu

Krisi garaian, guk ere esfortzua egin nahi izan dugu, gure prezioetan!

ESTETIKAKO ARETOA

Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu!

Uistin Kalea z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria

Eguberri eta urteberri on!

Riojanos

Erretegia

Afariak, bazkariak, pintxoak, ...

Uistin Kalea 13 • Tel.: 943 362720 • LASARTE-ORIA

**Ongi igaro Gabonak!
Eta urte berri on!**

TINHOA TABERNA

Razioak
Pintxoak
...

Etorri dastatzera!

Kale Nagusia 46 • Tel.: 943 370885

AIZPURUA

Pinturak

Gabon zoriontsuak izatea espero dugu!

- Pintura plastikoak bereziki.
- Nahiz duzun kolorea egingo dizugu momentuan.

**Zumaburuko industrialdea
LASARTE-ORIA
Tel.: 943 362153**

Maite
Erkizia

ILE-APAINDEGIA

ESTETIKA

Eguberri on!

**Blas de Lezo 5, behea
Tel.: 943 370254
LASARTE-ORIA**

SALAZARPROFESIONAL

Eguberri on!

**L'OREAL
WELLA
REVLON**

Schwarzkopf
montibel-jo
Peggy Sage

DELTOKI KALEA 15 • LASARTE-ORIA TEL.: 943 360 211

MANOLI

estankoa

Eguberri zoriontsuak opa dizkizuegu!

Geltoki 15 • Tel.: 943 362492 • LASARTE-ORIA

Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu!

Antonio Benito

Erregistratzeko kutxak eta pantaila taktila dutenak

**Aralar plaza 1, behea
Tel.: 943 371313
20160 LASARTE-ORIA**

Oso ondo pasa Gabonetan eta Urte berri on!

MARIA LUISA

ILEAPAINDEGI MIXTOA

**Pablo Mutozabal 9 behea
Tel.: 943 370980**

A. Arregi

eraikuntzako materialak

Gabon jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

ERAKUSKETA
Goikale 2
Tel./Faxa: 943 365947

BILTEGI NAGUSIA
Oria etorbidea 6 • Tel.: 943 366473 • 943 370998

— Agenda —

Osteguna 21, Okendo plaza, arratsalde osoa



Gabonei harrera ederra egiteko Santo Tomas

Gaur arratsaldean, Ttakun kultur elkarteak antolatuta, Santo Tomas eguneko azoka izango da. Honetan ohikoa den txerria eta taloaz gain, herriko elkarte desberdinek jarritako postuak izango dira. Batzuetan txistorra eta pintxo gozoak dastatu ahalko dira; besteetan, berriz, produktu desberdinak egongo dira salgai. Hala nola, Gazte Klubeko gaztetxoek eskuz egin dituzten pitxiak edo Munterri AEK-koen mariskadaren zozketa egingo da. Guztia musikaz alaitua izango da.

tako kantak eskainiko dituzte herriko erdigunean.

ZUMABURU IKASTETXEKO LOKALA

Astelehena 24, 14:30ean
Erketz EDT-ko lagunak baserriz baserriz joango dira Eguberrietako doinuak herritarrei eramaten.

ATSOKAK AUZOAZ

Astelehena 24, 16:30ean
Alboka Abesbatzak herriko kaleak girotuko ditu Eguberrietako kantak eskainiaz.

LOIDI BARREN-EGO PILOTALEKUA

Astelehena 24, 17:00etan
Olentzero eta Mari Domingiri harrera egingo zaie eta ondoren, Dinbi Danba batukada, Amalur triki eta pandero eskola, Kuadrillategi eta Gazte klubeko gaztetxoak laguntzaz kalejira egingo da.

OKENDO PLAZA

Astelehena 24, 17:45ean
Porrotx, Amalur trikiti eta pandero eskolako lagunak, Earra bertso-eskolako lagunak, Alboka abesbatzeko lagunak, Dinbi Banda batukadak ongi etorria egingo diote Olentzerori.

Astelehena 24, 18:00etan
Olentzerok haurren eskutitzak jasoko ditu.



Lasarte-Oria

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Igandea 23, 17:00etan

Haurren zinea atalean, "Las Aventuras de Tadeo Jones" marrazki bizidunetako filma eskainiko da. Sarrerak leihatilan, 3,40 euro; internetez, 3 euro. Gaztelaniaz.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Osteguna 27, 17:00etan

Ostegun zinea atalaren barruan, "A casa por Navidad" film norvegiarra eskainiko da, Okendo Zinema taldearen eskutik. Sarrerak leihatilan, 4,40 euro; internetez, 4 euro. Gaztelaniaz.



MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Igandea 30, 17:00etan

Haurren zinea atalean, "Hotel Transylvania" marrazki bizidunetako filma ikusgai izango da. Sarrera, leihatilan 3,40 euro; internet bidez, 3 euro.



Igandea 30, 19:30ean

Helduen zinea atalaren barruan, "A casa por Navidad" film norvegiarra eskainiko da, Okendo Zinema taldearen eskutik. Sarrerak leihatilan, 5,50 euro; internetez, 5 euro.

Elkarretaratzea

SAN PEDRO ELIZA ATARIA
Larunbata 22, 12:30ean

Lasarte-Oriako Gazte mugimenduko ELEA mugimendurekin bat egin eta

"Gure etxeko atea zabalik dute: esku-bide zibil eta politikoak" lelopean elkarretaratzea egingo dute.

Flash-moba

OKENDO PLAZA
Igandea 23, 13:00etan

Presoen lagunak antolatutako Flash-moba grabatuko da. Eguraldi txarra eginez, gero Loidi-Barrengo pilotalekuan izango da hau.

Olentzero

ZABALETA AUZOAZ
Astelehena 24, 10:00etan

Zabaleta Auzoko lagunak auzo eta inguruko kaleak alaituko dituzte haien kantuekin.

GARAIKOETXEA ERAIKINETIK

Astelehena 24, 11:00etan

Landaberri ikastolako ikasle eta gurasoek Olentzerorekin atera eta Gabone-

Egunberrietako Haur parkea

KIROL GUNEAN
Abenduaren 22tik 31ra

Herriko gaztetxoek primeran pasako dute Sarrera doakoa da haurrentzat. Helduek euro bat.



ZORIONAK
JUANKAR



Ur festa

KIROLDEGIKO IGERILEKUA

Asteazkena 25, 10:00etan

2000 eta 2007 urte artean jaiotako gaztetxoek Ur festa paregabeaz gozatu ahaliko dute. Olagarro maila izan behar da.

Musika

BRIGITARREN KOMENTUA

Ostirala 28, 19:30ean

Danok Kide elkarteak antolatzen dituen Musika Topaketen lehen saioan, Oartzungo Lartaun abesbatzaz gozatzeko aukera izango da.

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Ostirala 28, 22:30ean

Mugaldekoak taldearen folk-a entzuteko aukera izango da. Kultur kale zikloko saioa da.

ABEND KAFE-ANTZOKIA

Ostirala 28, 00:00ean

AZ/DZ eta Gabba Gabba Huy taldeen eskutik Bertzio gaua izango da. AC/DC eta Los Ramonesen doinuak entzuz gozatu Kultur kale zikloko saio honen barruan.

Jai

SAN ROKE ERMITAN

Astelehena 31, 10:00etatik aurrera

Ostadarreko Mendi sailak eta Tkun antolatuta urteari amaiera emateko Buruntza mendira igotzen diren laguntzako jai antolatu da. Txistorra, ardo eta musika izango dira.

Erakusketa

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Gaur arte, 18:00etatik 21:00etara

Brancusi akademiako ikasle gazteen erakusketa berezia. Azken 12 urte hauetan ikasle izan diren gazteen lanen garapena ikusi daiteke honetan.

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Abendua osoa

Abar Aranburu zarauztarraren argazki erakusketa abenduan zehar.



Sari banaketa

DANOK KIDE ELKARTEA

Asteartea 1, 12:00etan

Danok Kide elkarteak Jaiotzen XX. Lehiaketako sari banaketa ekitaldia egingo du.

Irakurketa

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Ostirala 4, 19:30ean

Presoen lagunek "Harresi guztien gainetik" preso eta iheslarien hitzekin antolatutako olerki irakurketa egingo da.



Errege Magoak

OKENDO PLAZA

Larunbata 5, 12:30etatik 13:30era

MEGABA elkarteak antolatuta tailerrak izango dira eta Errege Magoen postontziak egongo dira eskutitzak uzteko. Era berean, marrazki lehiaketako sari banaketa egingo du elkarteak.

ORIA AUZOA

Larunbata 5, 18:00etan

Errege Magoak Andoain aldetik iritsiko dira eta kabalgata hasiko da.

OKENDO PLAZA

Larunbata 5, 19:15ean

Errege Magoek agurra egin eta eskutitzak irakurriko dituzte Udaletxe berriko balkoitik. Ostean, Udaletxe berriko harrean haurrekin egongo dira Erregeak.



Atsobakar egoitza

Ostirala 21, 11:15ean

Gabonetako pregoia eta Santo Tomasen festa

17:30ean, Eguberriko kontu-kontaria

Larunbata 22, 11:15ean

Gozogintza Tailerra

18:00etan, Meza

Igandea 23, 17:30ean

"Guatemala: educando en valores" hitzaldia izango da Jose Antonio Muñoz De Ana-ren eskutik

Astelehena 24, 11:00etan

Eguberriko Zuhaitza piztea

17:30ean, Eguberriko Musikoterapia berezia

Astelehena 25, 17:30ean

Jaiotza bizia eta Eguberriko kantak

Asteazkena 26, 17:30ean

Gure Ametsa Jalguneren ekitaldia

Osteguna 27, 17:30ean

Emakumearen Zentro Zibikoaren Batuka ekitaldia

Lasarte-Oriako erretirodunen Biyak Bat elkartearen Aerobik ekitaldia

Ostirala 28, 17:30ean

Emakumearen Zentro Zibikoaren Antzerkia, "Caminito a Belén"

Larunbata 29, 17:30ean

Semblante Andaluz-en ekitaldia

18:30ean, Meza

Igandea 30, 17:30ean

Aurkezpen berezia "2012-ko Argazkiak"

Asteartea 01, 17:30ean

Eguberriko Gozogintza Tailerra

Asteazkena 02, 11:00etan

Irteera Ama Brigidatarren Komentura

17:30ean, Eguberriko Bingo berezia

Osteguna 03, 17:30ean

Nagusilaneko Abesbatza ekitaldia

Ostirala 04, 17:30ean

"Iruñe Galán" biolontxelo ekitaldia izango dute

Larunbata 05, 11:15ean

Erregeei harrera egingo diegu. Oparien banaketa ere egingo da

Eguberri jai zoriontsuak opa dizuegu!

Eguerditan ere irekita daukagu!



Juan XXIII.a plaza
Lasarte-Oria

LIBRERIA MAITE

Ondo igaro gabon jaietan!

Geltoki 12 • Lasarte-Oria
Tel.: 943 372791

ABREU

Ondo igaro gabon jaietan!



Geltoki 2 • LASARTE-ORIA • Tel.: 943 365846

FISIOTERAPIA ZENTRO Ibaiondo

Eguberri on!

Fisioterapia Masajeak
Errehabilitazioa Osteopatia

Ola Kalea, 12 - behea, ezk - LASARTE-ORIA
Tel. / Faxa: 943 370 306 - fisioibaiondo@gmail.com

Herritarren txokoa

Zorion agurrak

Maria Auxiliadoraren ohorezko meza

Zumaburuko Arantzazuko Amaren elizan Maria Auxiliadoraren meza ospatuko da gaur, abenduaren 21a, arratsaldeko 17:00etan.

Entrenamendua eta eskerrak

Beltzak Ostadar Errugby eskolako maila guztietako gaztetxoek entrenamendua dute igandean, 09:00etan Michelingo Kirol gunean.

Bestetik, eskolak eskerrak eman nahi dizkio Zarautz Errugby taldeko eta Biarritz Olympique-eko jokalariei ohia den Bebe-ri eskainitako ikastaroagatik.

Landaberri Institutuko zozketa

Landaberri Institutuko DBH4 mailako gazteek antolatutako zozketako bigarren saria ez da atera. Zenbakia 2661-a da. Zenbaki honen jabeak 943 365592 zenbakira deitu behar du saria jasotzeko.

Galdutako gauzak

Udaltzainen bulegoan gauza hauek daude jasota, lezkontza eraztuna, bi ordulari, bi betaurreko graduatu, patinete bat, neskatil baten poltsoa eta diruzorroa eta mugikor bat.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte Udaltzainen Bulegoan, 09:00etatik 13:00etara.

Katxalin elkarteko loteria

Katxalin elkarteak jakin arazten du, 70.498 zenbakira jokatzen ziren 2,50 euroak, akats administratibo bat dela eta, 2 eurotan geratzen dela eta gainontzeko 50 zentimoak 94.544 zenbakira jokatuko direla. Barkatu eragozpenak. Eskerrik asko.

Batxilergoko tituluak

Lasarte-Usurbil Institutuak 2010-2011 ikasturtean Batxilergoko ikasketak amaitu zituzten ikasleei jakin arazten die tituluak eskuragarri dituztela ikastetxeko idazkari-tzan.

Zuen oharrak jarri, kekek adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

LAGUNAK
ELKTRIKATE BERRIA
Eguberri on!
Etxebizitzetako eta komertzioetako...
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
Geltoki kalea 6, behea
Tel.: 943 371077
LASARTE-ORIA

TXINTXARRIK ez du zenbakirik izango astelehenean, hurrengo alea abenduaren 28an izango da, Urtekaria.



Oier

Zorionak txapeldun!!! Segi horrela guapeton! 7 muxu handi eta ehun mila gehiago etxekoek partetik!




Arkaitz

Zorionak guraso eta zure osaba Rafaren partez. Oso ondo pasa zure egunean!!!



Goitz

Sei muxu potolo aita,ama,Udane eta amonaren partez



Ane

Oso jatorra zara! Zorionak zure familieren partetik!!!



Josu

Mundu guztiko mendizalerik onena, pelotari-rik onena...Zorionak aita. Etxekoek partetik.



Nikola

Zorionak pottoli! Muxu handi bat zure bigarren urtebetetzean aitatxo, amatxo eta familiaren partetik!



Endika

Zorionak zure urtebetetzean! 10 muxu handi familiaren partetik, bereziki, aita, ama eta Julen.



Ibai eta Maialen

Zorionak bikote!!! 9 eta 5 muxu pottolo amaitxo, aitatxo eta amonaren partetik.



Agus

Zorionak txurrito!! Ahal duzun gehiena ospatu. Oso ondo pasa eta mila muxu Sararen partetik.



Pili

Zorionak prexioxa! 73 muxu Unai, Naroa, familia eta lagun partetik. Asko maite zaitugu!



Karla

Zorionak polita!! oso ondo pasa zure bigarren urtebetetzean. Bi musu potolo Arai, ama eta aita xoren partetik.



Judith

Zorionak polita! Milioi muxu gurasoen partetik zure zazpigarren urtebetetzean.



Gorka eta Unai

Zorionak aiton-amona Alfredo eta Pepiren partez, muxu mordo bat biontzat!



Nerea

Zorionak polita! Hiru muxu aitatxo, amatxo eta Eneritzen partetik.



Aitziber

Zorionak!!! 16 muxu potolo etxekoek partez. Ondo pasa!

Zorion agurrak bidaltzeko 943 36 68 58, txintxarri@txintxarri.info edo www.txintxarri.info web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.

Ondo igaro gabon jaietan!

• EUSKAL HERRIKO SUKALDARITZA


• JANGELA EGOKI-EGOKIAK, EZKONTZAK, JAUNARTZEAK ETA BESTE EDOZER OSPATZEKO

• ETXKO ESPEZIALITATEA: PARRILLAN ERRETAKO ARRAINA ETA HARAGIA.

DANA ONA JATETXEA

restaurante@danaona.com
Zubieta (Hipodromoaren ondoan)
Tel.: 943 365347/943 361731 • Faxa: 943 366020





Eguberri jai zoriontsuak opa dizkizuegu !

Geltoki Kalea 15 behea
Lasarte-Oria
Tel.: 943 376585

Nagusia 50, behea
Lasarte-Oria
Tel.: 943 363611

Nagusia 36 behea
Lasarte-Oria
Tel.: 943 370446

HARATEGIA



URDAITEGIA

**Eta orain, Urnietan ere
Balerdi Harategi berria**

LUIS CAR
autobusak

Eguberri zoriontsuak opa dizuegu!



- Espainiako eta nazioarteko garratxo-zerbitzuak.
- Enpresentzako, ikastetxeentzako... zerbitzuak.
- 15 plazako mikrobusak.
- 55 plazako autokarrak.
- Elbarrientzat behar bezala prestatutako autokarrak.

Uzturre plaza 1 Tel./faxa: 943366316 Mobila: 629461897 LASARTE-ORIA



Gabon zoriontsuak
opa dizkizuegu!



IZARRA
BITXITEGIA

www.izarrabitxitegia.com

Geltoki kalea 19 • Tel.: 943 371384
Juan XXIII.a plaza, z/g • Tel.: 943 364945

IPARJOY[®] A.I.E.